



hiruka

194. zenbakia
2023ko apirila

URIBE KOSTA SARETZEN

Immigrazioa: dibertsitatea eta erronkak

berria fm

PODCASTA

Ziklo berria

**Kazetaritza
feminista**
erraietan
eta uhinetan



UXUE Rey

ANE

Eslaba

**Hamabostean behin, asteazkenez,
Berria.eus/podcast webgunean eta plataformetan entzungai.**

Aurkibidea

- 4 Puntua eta kontrapuntua
- 5 Erretratua
- 6 Immigrazioa: dibertsitatea eta erronkak
- 10 Herriz herri
- 18 Hirudika: Icaza jauregia, barrutik
- 24 Berbetan: Irune Ruiz Ziarreta, Ikuspegiko ikertzailea
- 28 Berezia: hezkuntza
- 34 Uribe Kostako agenda
- 35 Mundukatuak
- 36 Lehen/orain eta Urubitakora
- 37 Musikhariak
- 38 Julene Puente, *20.000 especies de abejas* filmeko aktorea
- 39 Koldo Somokueto, Sopelako historia azterbide
- 40 Zinez diot eta Irakurrian
- 41 Usategi
- 42 Mikel de Gregorio, Euskal Selekzioko kirol-zuzendaria
- 43 Inhar Ugarte, Banakako Trinket Txapelketako txapelduna
- 44 Hirukira Olgetan: umeentzako denbora-pasak
- 46 Iritziak eta Horoskopoa
- 47 Zozketak



«Nire pertsonaiak beti dira apur bat txoniak»



Saretzen egitasmoaren baitan, bertako immigrazioa azterbide



«Immigrazioa gure gizartearen egitate estrukturala da»



«Buruz burukoan aritzea oso latza da»

hiruka

HIRUKA kooperatiba elkarte

Helbidea: Martikoena, 16, 2.a · 48992 GETXO

e-posta: hiruka@hiruka.eus

Posta-kutxa: 171

Telefonoa: 944 911 337

Publizitatea: Maria Gorostiola

Erredakzioa: Iker Rincon Moreno, Nahia Martinez Gondra, Hodei Torres eta Ander Zarraga

Diseinua: Artefakto

Kudeaketa eta administrazioa: Ziortza Merino

Zenbaki honetako kolaboratzaileak: Mujeres con Voz, Arantza Gutierrez, Julen Nafarrate, Saiola Hernandez, Joanes Atxa, Iñigo Esteban Lezkano, Ibaizabal, Joseba Santxo, Gorka Mostajo eta Iraide Juaristi

Filmazioa eta Inprimategia: Gertu Inprimategia

Lege-gordailua: BI-2022-2014

ISSN: 2386-98-95

Ale-kopurua: 5.000

CC-BY-SA

Erakunde laguntzaileak



Bizkaia

foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jasotzen du.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Kultura eta Hizkuntza Politika
Sailak (Hizkuntza Politikarako
Sailburuordetzak) diruz lagundua.

Medailatxoak, zintak eta trofeoak



MUJERES CON VOZ

Irakurtzen dut udal bat aitortu dutela berdintasunean abangoardista izateagatik, ingurumenean, kirolean eta, gehiegitan, «hiri anitzak» izateagatik. RAEk esango luke leku guztiak izan daitezkeela askotarikoak, baina aniztasun hori aipatzean, kasualitatez, jatorria aipatzen da: etorkinak.

Hiri horiek «immigrazioaren onurei» propagandaren bidez heltzen diote, «pluraltasunaren abantailak». Alde onak zerrendatzen dituzte IRABAZIAK errepikatuz, baina norbaitek irabazten badu, norbaitek galtzen du. «Integrazio» horrek desagerrarazi egiten du hasieran ospatzen zuen nortasun hori. Migratzaileak bere «balioa» frogatu behar du: hazkunde ekonomikoa aktibatu, biztanleriaren piramidea orekatu, zaintza-katearen beharrak bete bertako biztanleek beren lanpostuei eusteko... Gaizki ordaindutako lanak eta lan-baldintza oso txarrak onartzea, makineria kapitalista, arrazista eta aporofobiko horren aurreiritziak isiltzea eta jasotzea.

Migrazioak dakartzan gauza on guztiak saldu eta aurreiritzi kontrajarriak errepikatzen dituztenak txanpon bereko bi aurpegiak dira: biztanleria migratuari pertsona bezala datzekion giza-eskubideen alde borrokatzen jarraitzera behartzea, eta ez iristen diren lekuan sortzen dituzten irabazien mende egotera.

Eskolatik, jendarte inklusiboa



ARANTZA GUTIERREZ PAZ Polimilitante feminista

Eskola publiko baten atarian itzarotea baino ez dago nabaritzeko euskal gizartea aldatzen ari dela, herritarron definizioa zabaltzen ari dela; askotarikoa da, hizkuntza eta azaletan aberatsa. Badaude ezikusiarrena egiten dutenak, etorkinak zein horien seme-alabak besteak bezala ikusten jarraitzen dituztenak, mesfidantaz, nagusikeriaz edo, kasurik onenean, paternalismoz. Arrazakeria, xenofobia, badago gurean: lagun etorkinak dioen bezala, ohikoa da Poliziak berari dokumentazioa eskatzea, denda batean sartzean disimulu gutxiarekin merkatariak begira izatea edo, euskalduna izan arren, lehen hitza gaztelaniaz egitea...

Urrutitik heldutako bizilagunek bidaia luzea egin dute; batzuetan, Europak jarritako harresiak eta muga arriskutsuak gaindituz; bestetan, hegazkinez, baina gehienetan, deserrotzeak eta maiteak atzean uzteak dakarren minez. Hemen daudela, ez da bidezkoa guk ere harresiak altxatzea, haiek eta gu bat eraikiz. Guztiok erantzukizuna dugu jendarte inklusiboa eraikitzeko, gure kultura eta hizkuntzatik (batzuek uste dutenaren kontra, gaztelania ez baita migratzaileen hizkuntza), beste kulturek dakartzaten aberastasuna errespetatuz eta onartuz. Hori eskolatik eraikitzen da, eskola inklusiboak gizarte inklusiboa lortzeko lehenengo urratsa baita.

Puntua eta kontrapuntua **Askotariko kulturen Uribe Kosta**

Herria eraiki



*Ketxua, txinera, hindi
edo tigrayera,
Uribe Kostan dira,
sinpleki halaxe da.
Nahiz hitzoi hartzen zaien
arrotzen tankera,
ez al dira, finean,
atea, aukera,
gure herri bat sortzeko
haiekin batera?*

**PERU
IRASTORZA
SANTXO**
Algorta

*Atzean uzten dute
euren sorterrria;
nork bere oinazea,
nork bere egia.
Neure egiten dut, Peru,
zure ikuspegia.
Baliatu dezagun
aukera berria.
Haiekin behar dugu
eraiki herria!*

**JOSU
ARROYO
IZKOA**
Algorta



Bibiana Bakana Trabestia

«Nire pertsonaiak beti dira apur bat txoniak»



Apirilaren 16an ospatuko dute Bilboko Dragalada txapelketa. Bertan lehiatuko da Bibiana Bakana trabesti plentziarra, finalurrekoa irabazi ostean.

TESTUA: JULEN NAFARRATE • ARGAZKIA: HODEI TORRES ▶

Katuz jantzita heldu zaigu Bibiana Bakana Plentziako portura elkarrizketara. Hori bai, ez da edozein katu: «Katu txoni bat naiz. Bueno, egia esan, nire pertsonaia guztiak dira apur bat txoniak». 26 urteko gazte plentziarra iaz hasi zen trabesti ikuskizunetan parte hartzen: «18 urtegaz hasi nintzen trabestitzen etxean eta lagunartean, baina orain kalera ere ateratzen dut».

Hasiberria den arren, Bilboko Dragalada txapelketaren finalurrekoa irabazi du, eta apirilaren 16an izango du finala. Ikuskizunean ez zuen Lady Gaga edo Britney Spears bezalako abeslarien kantarik erabili: «Ingelesezko abestiekin ez naiz identifikatzen». Pirritx eta Porrotxen abesti bat erabili zuen: «Barregarria iruditu zitzaidan. Euskaraldiko abes-

tia jarri nuen, baina ahobizi eta belarriprest kontzeptuei zentzua apur bat aldatuta...». Umorea eta parodia dira Bibianarentzat gakoak: «Abesti bi sortu ditut, Spotifyn entzun daitezke: 'La clave del wifi', wifaren pasahitz zaileri buruzkoa, eta 'Viva la manga', mozkorraldiei omenaldia egiteko». Momentuz zaletasun hutsa bada ere, etorkizunean honetaz lan egitea gustatuko litzaioke: «Ondo pasatzen dut. Gainera, Dragaladak ate batzuk zabaldu dizkit. Bartzelonan ikuskizuna izango dut, adibidez». Final handirako ezustekoren bat prestatzen ari da: «La Otxoaren abestiren bat moldatu nahi dut». Bi ordu eta erdi behar izan ditu Bibianak gaur katu-txonia gorpuzteko: «Eta hori ez da ezer! Gaur arin egin dut, normalean hiru ordu baino gehiago behar izaten dut, atera kontuak». Drag-queen baino, nahiago du trabesti deitzea: «Bestea profesionalgia da niretzat». Bibiana sorpresa hutsa da, janzen den aldiro pertsonai ezberdin batean bihurtzea gustatzen baitzaio. Ez dago jakiterik nola agertuko den: «Nire inspirazioa kaleko jendea da: emakume zahar bat leopardo zantzita, fatxa bat, diskotekeroa, Peppa Pig... baina dena oso txonia, hori bai». ◀



**Atzerritarak
gurean
integratzeko
erronkak**



Beste eremu askogaz alderatuta eskualdeko biztanleria atzerritarra oraindino txikia bada ere, zenbatekoa handituz joango da etorkizunean. Errealitate estruktural baten aurrean gaude, eta, ondorioz, adituen arabera, tresna berriak garatu beharko dira gurera etorritako gizon-emakumeen integrazio soziala bermatzeko eta berdintasuna hauspotu ahal izateko.

TESTUAK ETA GRAFIKOAK: **IKER RINCON MORENO**

ARGAZKIA: **HODEI TORRES** ▶

Euskal Herri osoan gertatzen ari den bezala, aniztasun soziokulturala gero eta handiago izango da Uribe Kostan ere datozen urteetan. Gure ingurua «anomalía» bat izan da denbora luzez Europa mailan, bertoko atzerritarren biztanleria beste herrialdeena baino nabarmen txikiagoa izan baita orain gutxira arte. Oraindino ere portzentajea txikia da inguruko horiekaz konparatuta, baina, apurka-apurka, atzerritako jatorria duen auzokide gehiago egongo da gure inguruan etorkizunean.

Migrazioa fenomeno arrunt bat da; leku batetik bestera mugitzea gizon-emakumeen garapena bermatzeko ezinbesteko ekintza da, behar-beharrezkoa, mundu osoan ematen dena. Hala ere, fenomeno berria da gurean, baina gelditzeko etorri dena. «Immigrazioa egitate estrukturala da, eta zantzuek adierazten dute immigrazioa jasotzen jarraituko dugula Euskal Herrian datozen urteetan, azken bi hamarkadetan egin izan dugun bezala», azaldu du Iruñe Ruiz Ziarreta Ikuspegi Immigrazioaren Euskal Behatokiko kideak —irakurri elkarrizketa osoa 25-27 orrialdeetan—.

Espainiako Estatistika Institutuak egindako erroldako azken datuen arabera (2022), atzerrian jaiotako gizon-emakumeak biztanleria osoaren % 9,97 dira Uribe Kostan (17.296 pertsona), orain 20 urte baino % 5,7 gehiago. Horien guztien ia erdia Getxon daude erroldatuta, eta Leioan eta Erandion bizi direnakaz batuta, eskualdeko atzerritarren % 85 osatzen dute.

Orokorrean, Euskal Herrira etorritako migratzailearen profila Hego Amerikakoa eta emakumea da, eta hori are nabarmenagoa da gurean; zehazki, atzerritar jatorrikoen % 56,8 emakumeak dira Uribe Kostan, eta kopurua are nabarmenagoa da latinoamerikarren kasuan: 10etik sei emakumeak dira. Zergatik? Bada, bertako lan-merkatuak hala eskatzen duelako: «Lan feminizatuen eskaera handia dago eskualdean, hala nola etxeko zerbitzuan eta zainketa-lanetan aritzeko».

Ildo horretan, Getxoko emakume migratzaileak batzen dituen Mujeres con Voz elkarte-kideek azaldu dutenez, «gaia asko sinplifikatzea bada ere», inolako sarerik gabe gurera datozen emakume migratzaile gehienek ezin izango dute egoitza-baimenik eskuratu sustraitze sozialak agintzen dituen baldintzak bete arte, eta horiek dira: gutxienez, hiru urteko aldi etengabeaz Espainiako Estatuan egon izana egiaztatzea, berbarako, errolda-agiri baten bitartez; lan-kontratu bat edukitzea eta horren iraupena gutxienez urtebetekoa izatea; eta Estatuan modu legalean bizi diren eta baimen egokia duten beste atzerritar batzuen senitartekoak direla egiaztatzea edo gizartean integratuta daudela ziurtatzeko txostena aurkeztea. «Hori guztia dela eta, etxeko langile gisa edo zaintza-lanetan arituko dira emakume migratzaile horiek, gutxienezko soldata jasota gainera».


Migratzaileen arteko sareen garrantzia nabarmendu dute aktibistek, horien bitartez, besteak beste, tokiko kode kulturalak ezagutu eta zerotik ez hasteko ahalbidetzen dutelako. Hori dela eta, gabezia horiek dituzten emakumeak lagundu guran, elkar zaintzeko guneak eskaintzen ditu Mujeres con Voz kolektiboak. «Hortik aurrera, elkartzeko eta bizikidetzarako ekintzetan parte hartzeko gonbita egiten diegu». Haietzako oinarritzko zerbitzuak eskaintzen dituzte, hala nola lan-aholkularitza, arreta psikologikoa eta izapideak egiteko laguntza. «Baina ez hori bakarrik; eragile politikoa ere bagara, egoera ezberdinen inguruan hausnarketak bideratu eta, beharrezkoa denean, salaketak egiten ditugu, gainontzeko pertsonak bezala duten eskubideetarako sarbidea aldarrikatzen dugu», nabarmendu dute Mujeres con Voz taldeko kideek.

«LANA ETA HEZKUNTZAREN GARRANTZIA». Ikuspegiko Irune Ruizek azaldu duenez, Uribe Kostara datozen pertsona migratzaileak gurean geratzeko asmoz datoz, bizitza berri eta etorkizun hobe baten bila. Hori dela eta, tokiko datuen faltan, nabarmendu du EAEn lan egiteko adinean bizi diren atzerritar gehienak lanean edo lan bila ari direla. Hala ere, azaldu du horien artean langabezia-tasa % 28 ingurukoa dela, «bertako biztanleriarena baino nabarmen handiagoa». Azaldu duenez, gizonetako etorkinek, orokorrean, eraikuntzan eta ostalaritza-zerbitzuetan lan egiten dute, eta emakumeek, aldiz, zaintza-lanetan eta etxeko sektoreari lotutakoetan; «EAEn, enpleguen herena osatzen dute azken horiek, eta Uribe Kostan horren eskari asko dago, bai biztanleriaren zahartzeagatik, baita horrelako enpleguak dituzten familien beharagatik ere».

Atzerritar jatorriko biztanleria Uribe


Eskualdean bizi diren atzerritarren % 85a Getxon, Leioan eta Erandion bizi dira.

Portzentajea




Integrazioa

Gurean bizi diren atzerritarrek bertan geratzeko asmoa dute, bizitza hobeko baten bila.



Kostan 2021ean

Atzerritarren banaketa, sexuaren arabera



Lemoiz

% 5,6
74

2002ko egoera UrIBE Kostan

Tokiko ekonomiaren goraldiak eragin du immigrazioa handitzea EAEn, baita gurean ere. Fenomeno estrukturala da, mundu mailakoa.

Lanaz gainera, hezkuntza ere integrazio-rako tresna garrantzitsua dela dio Ikuspegiko adituak. Izan ere, orain, gizartean errotzeaz gainera, prestakuntza errotzearen bitartez erregulariza dezake migratzaile batek bere egoera.

Ildo horretan, eta migrazio-datuak aztertuta, Xabier Aierdi Soziologian doktore eta immigrazioan adituak nabarmendu du bada-la momentua gizarte berri bat sortuko dela pentsatzeko, «jatorri ezberdinetako pertsonen osatutakoa». Hori dela eta, euskal gizartearen erronka pertsona horiei hiritartasun praktikoa eskaintzea izango dela iragarri du: «Gizarte bat sortu behar dugu bizitzeko merezi duena. Denentzako aukera berdina eskaini eta pixkanaka aukerak berdinduko dituena. Etor-kizunera begira etekinak emankorrek izango direla pentsatu beharra dago. Azken finean, lortu behar duguna da goranzko mugikortasuna bermatzeko tresneria bat ipintzea, adibidez, migratzaileen seme-alabek bertan ikas dezaten». Horren harira, Aierdik azpimarratu du migratzaileek eragin ekonomiko «ikaragarria» egiten dutela, «materiala zein afektiboa».

TOKIKOAK ETA ATZERRIKOAK, BATERA. Integrazio-bide horretan, Aierdik nabarmendu du oso inportantea dela kulturen arteko kontaktua ahalik eta handiena izatea; «nahastuta egotea

2.115

boliviarrak gehiago erroldatu dira gure eskualdean 20 urtean; gehien hazi den komunitatea da.

%9,97

da atzerritar jatorriko biztanleria gurean; 2002an % 4,2koa zen.

-37

ekuatortarrek utzi dute eskualdea 2002tik hona.

UrIBE Kostako etorkin gehienak emakumeak eta Amerikatik etorritakoak dira, lanak erakarrita.

Atzerriko jatorri jendetsuenak gurean?

HERRIALDEA	PERTSONA
Bolivia	2.235
Kolonia	1.923
Paraguai	1.141
Maroko	896
Venezuela	870
Peru	791
Errumania	670
Argentina	573
Ekudor	538
Frantzia	502

DATUEN ITURRIA: INE
2022ko urtarrilaren 1eko errolda

gizarte bezala izan behar dugun helburuetako bat da berdintasuna lortzeko». Ildo horretan, askotariko iniziatibak sortu dira inguruotan, hala nola Bizilagunak izenekoak. Mota horretako egitasmoek elkarketarako aukera eskaintzen dute, «tokiko eta atzerritik etorritako auzokide berrien arteko elkarreragina hauspotzeko eta elkarbizitza baketsu bat bideratzeko aukera eskaintzen dutelako», azaldu dute Getxoko Bizilagunak proiektuko kideek.

Egitasmo hori 2004an sortu zen, Txekiar Errepublikan, «etxean otordu bat partekatzea bezain gauza sinple eta intimoa migratutako pertsonak eta bertakoak hurbiltzeko modu bat izan zitekeela pentsatuta». Ekitaldi hori urtero hasi zen errepikatzen, Europako hainbat herrialdetan hedatu zen, eta 2013an Euskal Herrira iritsi zen. Horri esker, hainbat elkartetan eta udalerrik hartu zuten lekukoa, tartean Getxokoak, eta ordutik hala jarraitzen dute egiten gaur egun ere. «Urte batzuk igaro zirenean, ekimen horren potentziala topaketa sortzeko aukera gisa ikusi genuen, eta apur bat aldatu genuen, indartsuagoa izan zedin. Orain bertan, urteroko Bizilagunak jardueren programa bat dugu, eta, horren bidez, hainbat ekintza antolatzen ditugu urtean zehar, pertsonak elkartu, partekatu eta Bazkariak programaren ekitaldi arrakastatsuan parte hartzea animatzeko», azaldu dute antolatzaileek. ◀

Getxo Apirilaren 25era arte

Ume sahararrak udan hartzeko izena emateko epea, zabalik

C OVID-19aren ondorioz hiru urtez horretarako aukerarik ez egon ondoren, uztailean eta abuztuan etxean Saharako umeak hartzeko ekimen solidarioan izena emateko epea zabaldu dute, apirilaren 25era arte. «Uda bateko besarkada» lelopean, Afal Sahararen aldeko Getxoko Elkarteak antolatu du ekimena, Getxoko Udalaren laguntzagaz, Oporrak bakean kanpainaren barruan. Horren bitartez, Tindufeko (Aljeria) errefuxiatuen kanpamenduetako errealitate gordina ahazteko aukera izaten dute 8 eta 9 urte arteko umeek. Egitasmoaren helburuak dira adingabekoen oinarrizko beharizanak asetzea aipatutako hilabeteetan; azterketa mediko orokorra, begietakoa eta hortzetakoa ahalbidetzea; beren bizilekuko klima gogorra pairatzea ekiditea, tenperaturak 55°Cra iritsi ahal direlako; trukaketa kulturala, eta getxotarren artean Saharako herriak bizi duen egoeraz sentsibilitatea sortzea. Urtero bezala, Udalak, besteak beste, honako gastu hauetarako ematen du diru-laguntza: kanpamentuetatik etortzeko eta joateko bidaiarako, txangoetarako eta ekitaldiatarako. Pertsona interesatuek izen-ematea egin edo informazioa eska dezakete 658 751 359 zenbakira deituta edo Getxoko Udaleko Lankidetzsa sailean: 944 660 017. ◀

Getxo Alokabide

Bertoko etxebizitza hutsak alokairua jartzeko hitzarmena

G etxoko Udalak eta Eusko Jaurlaritzaren Sozietate Publikoa den Alokabidek hitzarmena berritu dute, udalerriko etxebizitza hutsak mobilizatzeko eta alokairuko parkea handitzeko asmoz. Izan ere, 2018an egindako azken azterlaneko datuen arabera, bizilagunik gabeko 900 etxebizitza inguru kudea daitezke Getxon. Alokabidek bi programa-mota eskaintzen ditu udalerrian etxebizitza hutsa duten pertsona eta erakundeentzat: alde batetik, Bizigune, eskatuena, Getxon 75 atxikimendu dituenak, eta, horietatik sei, onarpen-prozesuan daudenak; eta, bestetik, Asap, bi atxikipen dituenak. Azken hori laguntzaileen sare baten bidez jarri dute abian, eta horien artean dago Alokabide. ◀

Getxo Manifestazio jendetsua

HAPO berria «goitik behera» aldatzea eskatu dute

Getxo «espekulatzailen menpe» ez uzteko aldarria ozen entzun zen martxoaren 25ean. 3.000 lagunetik gorak parte hartu zuen Adi HAPO taldeak deitutako manifestazioan.



Martxoaren 25ean, zapatuan, egin zuten manifestazioa udalerrian. © HADI HAPO

A lgortako Telletxe plaza-tik abiatuta, orain dela 16 urteko irudia errepikatu gura izan zuten joan den martxoaren 25eko manifestazioan. Garai hartan egindako mobilizazioei esker, Adi HAPO plataformako kideek gogoratu zuten «oso desberdina» izango litzatekeela gaur egun Getxoko paisaia. «Orduan, herritarrok eraikuntza enpresen diru-goseak bultzaturiko porlan-uholdea gelditzea lortu genuen, gure arnaguneak diren lurak defendatuz», azpimarratu zuten atzoko manifestazioaren deitzaileek.

Manifestazioa bukatuta azaldu zuten 16 urteotan berdeguneak galdu direla, hala nola Tosuko landa eta Iturribarriko ortuak, «baina berdegune gehienak mantentzea lortu dugu». Hala ere, deitoratu zuten Getxoko gobernu-taldeak proposatutako HAPO berriaren ondorioz udalerria «espekulatzailen menpe» geldituko dela berriro ere: «Sal-

sidualde, Tosu, Martiturri... Landa eremu guzti horiek galdu daitezke, ehunaka auzokideren etxeak eraitsiz, eta mendeetako ondarea desagerraraziz». Ildo horretan, gainera, salatu zuten desagerrarazte horiekaz batera tokiko berezko euskalkia ere gal daitekeela.

Landa eremuez gainera, Algortako erdigunea eraikuntza enpresen «diru-goseaz» libratuko ez dela ere iragarri zuten manifestazioko kideek, «Batzokian eta Trinitarioseko esparruan operazio inmobiliarioak aurreikusita baitaude».

Hori guztia dela eta, Adi HAPO plataformak eskatu du hirigintza-plana «goitik behera» aldatzeko, «eraiki nahi den etxebizitza kopurua murriztuz, alokairu sozialari lehentasuna emanaz, lehen sektorea bultzatuz eta gure ondare natural eta kulturala babestuz. Izan ere HAPOa herriaren beharretan oinarritua egon behar da, ez espekulatzailen diru grina aseezinean». ◀

Erandio Dorrearen errestaurazioa

Martiartu dorre berrituak jarduera ekonomikoak hartuko ditu

Erandioren iraganeko ikurra da Martiartu dorrea, baina hainbat urtez hutsik eta erabilerarik gabe egon denez, gaur egun oso zaharkituta dago. Hala ere, azken hilabeteotan dorrea ikertzen arituen taldeko Veronica Quintanilla monumentuen zaharberritzean espezializatutako arkitektoak azaldu du eraikinaren egitura «egoe-
ra onean» dagoela.

Orain, Erandioko Udalak eraikin historikoa berreskuratzeko proiektua egin gura dela iragarri du, zehaztu du bere barrualdean kristalezko egitura bat jarri eta jarduera ekonomikoak garatzeko baliatuko dutela. Hasiera batean, udal-iturriek aurreratu dutenez, baliteke postproduktzio estudio bat jartzea bertan, baina ez dute aurrekonturik ez epe-rik finkatu, beraz, dute baztertu bestelako proiekturen bat garatzea bertan.



XIII. mendetik

Gaur egungo dorrearen egitura XVI. mendekoa da, baina horren aurretik, artxiboetako informazioari esker, adituek jakin dute, besteak beste, XIII. mendean egurrezko egitura militar bat zegoela bertan.

Momentuz, gobernu-taldeak iragarri duenez, berritze-lanak luzeak izango dira, bere egitura legeak babestuta dagoelako. Alde batetik, egitura egonkortuko dute, eta, horren ostean, desnibeletarako irtenbide bat bilatu gura dutela azaldu dute, eskailerakaz edo igogailua bategaz egingo litzatekeena.

«Dorrearen azterketa arkeologikoa eta historikoa egiten zen bitartean, ekintza nagusi bi egin genituen: batetik, jendeak dorrea ezagutzeko eta erabilerari buruzko bere iritzia emateko bisita gidatuak; eta, bestetik, aholkularitza-batzorde bat eratu genuen, bizilagunek eta inguruko erakundeek osatua», azaldu du Adrian Busto Erandioko Udaleko Kultura zinegotziak. Bere aldetik, Aitziber Oliban alkateak eraikin historikoaren garrantzia azpimarratu eta Erandion «balio handieneko eraikina» dela adierazi du. ◀

Zer egin dezakegu Erandion EUSKARARI BULTZADA emateko?



ERANDIOKO EUSKARA SUSTATZEKO VI. EKINTZA PLANAREN DATUEN AURKEZPEN LABURRA, EBALUAZIOA ETA ERRONKAK IDENTIFIKATZEKO PARTE-HARTZE PROZESUA

1. DEIALDIA:



APIRILAK 18 - 9:30 GAZTETXOKOAN, 1.1 GELAN

2. DEIALDIA:



APIRILAK 19 - 14:30 GAZTETXOKOAN, 1.1 GELAN

3. DEIALDIA:



APIRILAK 20 - 18:30 JOSU MURUETA KULTUR ETXEAN, GELA URDINEAN

AUKERATU LAN SAIO BAT ETA ASISTENTZIA KONFIRMATU EUSKARA ZERBITZUAN:
944 890 128 / euskara@erandio.eus / 636 576 245



Leioa Elkarteen greba

Greba egin dute aniztasun funtzionaleko langileek

Bizkaian aniztasun funtzionaleko pertsonak artatzeko sektorean lan egiten duten 1.000 langile inguru hartzen dituzte Gaude, Aspace eta Gorabide elkarteek. Horiek eta Argia Fundazioko beharginek indarrak bateratu dituzte eta «hitzarmen duin» baten alde gauzatzen ari diren borrokan beste aurrerapauso bat eman zuten martxoaren 28tik 30era bitartean egindako protestetan. Besteak beste, Gaudeko langileek martxoaren 28tik 29ra kanpaldia egin zuten Leioako Amaia etorbideko elkarteen egoitzan. Horrez gain, aipatutako egunetan, beharginek hainbat mobilizazio egin zituzten Bilboko kaleetatik; grebalariek LAB, ESK eta ELA sindikatuen babesa izan dute.

Gehienbat emakumez osatutako lantaldeak direla azpimarratu dute eta salatu dutenez, Aldundia eta enpresako gerentzien artean ari dira elkarri pilota pasatzen, arazoa konponduko duen hitzarmena adostu gabe. Batetik, Aldundiak esan die eros-ahalmena berreskuratzea bere gain hartuko duen akordio bat bermatzeko aukera dagoela, baina, bestetik, gerentziek diote ez dagoela haien esku proposatzen dizkieten igoera ekonomiko handiagoak egitea, «ez baitute Aldundiaren abal ekonomikorik». Langileek egoera hori desblokeatzeko exijitu dute, eta hiru aldean arteko bilera eskatu dute. ◀

Leioa Sexu-erasoa

Emakume adingabe batek sexu-erasoa salatu du Leioan

Ertzaintzak baieztatu zuenez, aurreko martxoaren 10ean, 14 urteko neska batek bere aurkako sexu-eraso bat salatu zuen. Gertaera Artatza parkean jazo zen, aste-akabuetan gazteak elkartzen diren gunean. Lehen informazioen arabera, Ertzaintzak erasotzaileetako bat atxilotu zuen, eta gertaeragaz nahastutako beste bi identifikatu zituzten, eta kasua Adingabeen Fiskaltzaren esku geratu zen.

Gertakizunean inplikaturakoak adingabeak direnez, Segurtasun Sailak ez zuen horren inguruko informazio gehiagorik eman, horien babeserako legerari jarraituz. ◀

Leioa Lamiakoko eta Txopoetako hirigitza-proiektua

Lamiakoko dartsena birgaitzeko HAP0a egokituko dute

Iban Rodriguez alkateak adierazi duenez, egindako prozesu parte-hartzailean ondorioztatu dute egitasmoaren lau aspektu egokitu beharko liratekeela.



Alkateak iragarritako aldaketan artean, Lamiakon metroaren lurperatzea dago.

Aldaketa horiek auzoko bizilagunek azken hilabeteotan azaldutako errefusaren ostean datoz; izan ere, Udalak eta enpresa-sustatzailerak Lamiakoko dartsenaren ingururako proposatu zuten HAP0ren aldaketak aurkako hainbat iritzi eragin ditu Lamiakoko eta Txopoetako bizilagunen artean; auzotarrak Lamiako Txopoeta Bizirik elkarte gisa ere egituratu ziren egitasmoa geldiarazteko helburuagaz.

Alkateak iragarritako lau aldaketa horietatik, lehenak eraikiko dituzten etxebizitzak dentsitateari eragingo dio. Rodriguezek azaldu duenez, 1.200 etxebizitza egiteko aurreikuspena 895era jaitsi dute, gainera, «Langileria inguruko eraikinak 12 solairu izatetik seira igaroko dira, eta 20 solairukoak 12ra».

Bigarren puntuan, aurreikusitako zuzkidura-erakinen eta inguruko aparkalekuei buruzko planteamenduaren inguruko azalpenak eman ditu alkateak, adieraziz horretarako hainbat aukera ari direla

aztertzen, besteak beste, aparkaleku publiko bat, udal-eraikin baterako gunea eta zuzkidura-apartamentuetarako eraikin bat ere.

«Leioako bizilagunek eskatzen ziguten hirugarren puntua dartsena guztiz berreskuratzea zen; hori aurreikusita zegoen», jakinarazi du alkateak. Horren inguruan hezegunea erabat berreskuratu gura dutela iragarri du Rodriguezek: «Zati bat dartsenaren ibai- eta padura-sistemarentzako erabiliko da, eta beste bat leioaztarren gozamenerako gunea izango da, basoagaz eta parke batez. 180.000 metro koadroko ingurune bati buruz ari gara, San Mames bezalako 25 futbol zelairen parekoa».

Laugarren eta azken puntuan metroaren erabateko lurperatzearen inguruan aritu da alkatea, nahiz eta ez duen zehaztapen finkorik egin: «Aldaketaren bitartez, lurperatze horretarako dirua lortuko dugu, lanean ari gara, Lamiakotik igarotzen den metroaren lurperatze osoa egin ahal izateko». ◀

Sopela Udaberri Jaia

Euskal Herriko joaldunak bilduko dituzte Sopelan

Maiatzaren 6an egingo duten Udaberri Jaian Meñakoz Kultur Elkarteko kideek taldearen 20 urteko ibilbidea ospatuko dute. Festa borobila izan dadin, Euskal Herriko Joaldunen Jaia ere egingo dute egun horretan.

Udaberri Jaia egun berezia da Meñakoz Kultur Elkarteko kideentzat; izan ere, egun horretan elkartzen dira «Herria eta kultura» leloa duen elkarte osatzen duten taldeetako partaide guztiak.

Aurtengo ospakizuna maiatzaren 6an egingo dute, eta elkarteak 20 urte betetzen dituenez, antolaztaileak egun berezia ari dira prestatzen. Horretarako, besteak beste, Euskal Herriko Joaldunen Jaia eta elkarte duela bi hamarkada sortu zutenak omentzeko ekitaldia egingo dituztela aurreratu dute.

Horrez gain, egun horretan, hainbat herritarrek osatzen dituzten askotariko taldeek euren emanaldiak ere eskainiko dituzte, hala nola haur dantzariak, gazte dantzariak, dantzari helduak, Sopela Kantari Taldea, Sopelako panderojole zein trikitilariak, txalapartariak eta Sopelako joaldunak. Horietaz gain, ez dira falta herri-bazkaria eta bazkalosteko abestiak eta dantzak ere.

Arestian aipatu bezala, Euskal

Herriko hamaika txokotatik etorriko diren joaldun-taldeek ere ikuskizuna eskainiko dute festa horretan; horretarako, Zumaia-tik, Lezotik, Atarrabiatik, Zornotzatik, Olaguetik, Lekeitiotik, Kanpezutik, Hendaia-tik, Hazparnetik, Donapaleutik, Tuteratik eta beste hainbat herrietatik etorriko dira taldeak.

20 URTE. Joanes Atxa elkarteko kideak gogoratu duenez, «taldea 2003an sortu zen, ikusi zelako Sopelan euskal kultura eta folkloreak inguruan lan egingo zuen talde baten beharra zegoelako». Hortik abiatuta, hainbat alor jorratzen dituzten taldeak sortu ziren, hala nola dantzariak, umeen taldeak, panderojole eta trikitilariak... Horrez gain, gazteen artean kulturaren transmisioa eta Euskal Herriko beste talde batzuek hazteko ere jorratzen aritu direla dio Atxak, «horregatik, egun horretan Euskal Herriko hainbat herritarrek joaldunak ere ekarriko ditugu». ◀

Sexualitatea

SAIOA HERNANDEZ Psikologoa



Desiren munduan erasorik ez

Desira sexuala edo erotikoa emozio bat da, pubertaroan agertuko den emozio berria eta berezia. Batzuentzat bat-batean agertu daiteke, estimulu baten aurrean gorputza hunkitzean edo kitzikitzean. Beste batzuek, norbaitekin hartu-eman erotikoa izatera mugitzen duen bulkada bat izan dezakete, gozamen-jolas edo intimitate-goza bat bilatzeko motibazio berri bat.

Desiraren norabidea edo estimuluak ez dira aukeratzen, edozein lekutan, edozein pertsonarekiko eta edonoiz agertuko dira. Beraz, norbere «izate sexuatu» horren onarpenak, komunikatzeko eta konpartitzeko gaitasunak bideratuko ditu bizipen sexualen ongizatea edo esperientzia negatiboak. Desiraren intentsitate desberdinak gure nahi, behar eta izateari buruzko «pistak» ematen dizkigute. Ezin izango dugu desira deuseztatu edo desagerrarazi, baina bai bideratu, bakoitzak erabaki beharko du bere bizitzan izango duen eragina, presentzia eta arreta. Bakoitzak bere intimitatean, bere gorputzarekin zein fantasiarekin nahi duen guztia bizi dezake. Baina adi! Beste batekin banago... nire desirak beste pertsonarena behar du. Hau ulertzen ez duenak desiran oinarritutako harremanak izan beharrean, indarkeriazkoak izango ditu.

Desira emozio pertsonal eta subjektiboa izateaz gain, kulturaren testuinguruan garatuz doa. Gure gizartean desiren kontra indarkeria mota asko gauzatu dira, adibidez, homoerotismoa patologia bihurtzea, «desira sexualaren» izenean erasotzea edo «maitasun desira»-ren izenean emakumeak erailteak. Indarkeria matxistaren muga gainditzen ez den bitartean, disfrutatzea, ongi pasatzea eramaten gaituen emozio honen mundua babestea eta zaintzea premiazkoa da. ◀

Egitaraua

Maiatzak 6, zapatua

11:00 Zapi-tailerra eta euskal jantzien erakusketa, udaletxeko plazan.

12:00 Euskal Herriko Joaldunak eta Sopelako trikitilari eta panderojoleak herrian zehar.

13:00 Meñakoz, 20 urte ekitaldia eta argazki erraldoia, udaletxearen alboko berdegunean.

13:30 Meñakoz eta Eguzkilore taldeen dantza-agerraldia, udaletxearen alboko berdegunean.

15:00 Herri-bazkaria, udaletxeko plazan.

16:30 Bazkalostea Sopela Kantari taldeagaz batera.

18:00 Labarretan ikuskizuna.

19:00 Dantza-plaza Zuzterrak taldeagaz batera.

Plentzia Plasentia de Butron museoaren 25. urteurrena

Erakusketa bategaz hasiko dituzte urteurren-jarduerak

Plasentia de Butron museoak 25 urte beteko ditu aurten; hori dela eta, besteak beste, erakusketa berri bat eta Plasentia dibulgazio-aldizkaria aurkeztu dituzte.

Itsasoagaz lotura izan duten hainbat plentziarrek sortu zuten Plasentia de Butron museoa 1998. urtean. Ordutik, jendeak dohaintzan eman dituen eta hiribilduan aurkitu dituzten hainbat objektu historiko gordetzen joan dira bertan, gainontzeko herritarrek eta bisitariak ere bertako historia ezagutzeko aukera izan zezaten. Denboragaz, museoa herrira zabaltzen joan da, eta azken urteotan historiaren hainbat profesionalak eta adituk parte hartu dute bere osaketan. Orain, museoak mende laurdena beteko du, eta, hori ospatzeko, urtean zehar garatuko dituzten hainbat jarduera aurkeztu dituzte. Horiek aurkezteaz arduratu dira Arantxa Renteria museoko presidentea eta Elixabete Uribarri Plentziako alkatea.

Hasteko, museoak jasotzen duen ondare nautiko, sozial, kultural eta artistikoaren lagun bat plentziarrei eta bisitariari erakusteko

Egitaraua

Aste Santuan

Bisita gidatuak alde zaharrean.

Maiatzak 20

Museoaren 25. urteurreneko ospakizunen egun nagusia.

Uztailaren 10etik 14ra

Uribe Kostako XV. Historia Jardunaldiak.

Uztailak 31

Umeentzako jarduerak.

Abuztuan

Kantauriko Itsas Kulturaren V. Kongresua.

Urriari

Bizkaiko Foru Aldundiak hilabete osoan zehar antolatuko dituen Ondarearen Europako Jardunaldiak.

Urriak 5

Plentziaren 724. urteurrenagaz bat datozen jarduerak.

2023an zehar

Taldeentzako erakusketara museoan eta Udal Artxibo Historikora.

Ahaztutako altxorrek aldi baterako erakusketa abiatu dute. Bertan, orain arte ikusi gabeko objektuak edo museoaren pieza baliotsuenetarikoz batzuk bildu dituzte, XVI. mendeko Goienkale kaleko eraikineko lehen solairuan.

Horregaz batera, *Plasentia* dibulgazio-aldizkariaren lehen alea ere aurkeztu dute. Sei hilabetero argitaratuko duten aldizkariaren helburua da museoko objektuen eta Plentziaren historiaren inguruko hainbat gairen dibulgazioa egitea da. Horretarako, aditu eta zaleen ekarpenak bilduko dituztela iragarri du Renteriak.

BISITEN GORAKADA. Azken urteotako bisitarien kopuruari dagokionez, Plasentia de Butron museoak gorakada nabarmena izan duela ere azpimarratu dute arduradunek; izan ere, 2022an, 5.200 bisitari baino gehiago jaso zituen, pandemiaren aurreko marka guztiak hautsiz, eta aurreko kopuru hori gainditzea aurreikusten dutela aurreratu du museoko arduradunak.

Halaber, plentziarrei museora joatera animatzeko, museoak eta Udalak gonbidapen berezia egingo diete etxeetan jasoko duten sarrera sinboliko batez. Aurreratu dutenez, hori aurkeztuta sarrera doakoa izango da, eta, bertan trukaturaz gero, 25. urteurrenarengatik ospakizun-opari berezia ere jasoko dute. ◀

Plentzia Arreta-gune berria

Tren-geltoki zaharra turismo bulego bihurtzeko aukera aztertzen ari dira

Metro-geltokiaren ondoan dagoen eraikin zaharraren lehen solairuan turismo bulegoa eta Txipio eta Gatzamiñe auzoetako bizilagunentzako Herritarren Arretarako Zerbitzurako (HAZ) bulegoak egokitzeko aukera aztertzen ari dira Plentziako Udala eta Metro Bilbao. Horrez gain, bigarren solairuan Udaleko hainbat arlotako udal-teknikariak instalatzea eta hainbat jarduera jasoko dituen erabilera anitzeko areto bat egokitzea ere aurreikusi dute.

«Ondare- eta historia-baliabide bat berriro ere bizirik egongo da udalerrirako betiko sarbide nagusian»

ELIXABETE URIBARRI
PLENTZIAKO ALKATEA

Udalak aurkeztutako aurreproiektuaren arabera, egokitzapenaren ondoren, aipatutako eremuak guztiz independenteak izango lirake, lan- irekiera eta ordutegi aukera desberdinak errazteko, eta biltegitratze- eta garbiketaren eremu propioak izango lituzkete, independentzia handiagoa ahalbidetzeko. Halaber, udal-zerbitzu bakoitzak pertsona guztientzat guztiz irisgarria izango den sarbide bat izango du kaletik. Egokitze-prozesu horretan, eraikinaren fatxadaren aldaketa nabarmenik ez izatea ere aurreikusi dute. ◀

Barrika Udalerriko azpiegiturak hobetzeko proiektua

Goierri auzoa berriztuko du Barrrikako Udalak

Martxoaren 22an, Barrrikako Udala auzokideakaz bildu zen udalerria berriztatzeko egitasmoa aurkezteko. Planak ezinegona eragin du auzokide askoren artean.

Barrrikako Udalak aurkeztutako planaren arabera, Goierri kaleko eta Itxasalde Etxetaldea kaleko zoladura guztiz berritzeko jarduketak egingo dituzte, baita argi batzuk egokitzeko eta geometria berriaren araberako hustubide berriak jartzeko lanak ere. Gainera, Goierri Apartamentu Taldea kalearen inguruan aparkalekuak berrantolatuko dituzte, dauden partereak kenduz.

Modu horretan, Goierri kalean dauden espaloiak hobetzea aurreikusten dute, zoladura berrituz eta zabalagoa eginez, oinezkoen joan-etorria «atseginagoa» izan dadin. Gainera, bizikletentzako bide bat egin eta galtzada berriro asfaltatuko dute. Halaber, Udalak azpimarratu du, inguruan dabilzan ibilgailuen abiadura murrizteko asmoz, Goierri kaleko eta kale perpendikularren arteko elkarguneetan galtzadaren kota igo egingo dutela, asfalto inprimatuaren akaberagaz konbinatuz. Horrez gain, seinaletzapen horizontala ere jarriko dute, abiadura mugatzeko sinboloakaz, eta, gainera, bidegorria eta pasabide goratuak bezalako guneak adieraziko dituzte.



Udalerrian egingo dituzten aldaketak erakusten dituen mapa. © BARRIKAKO UDALA

Helburuak

«Goierri kalearen berrurbanizazioaren diseinua martxan jarri da oinezkoen garrantzi handiagoa emateko eta ibilgailuen zirkulazio-abiadura murrizteko auzoko hiri-ingurunean»

Udal-iturriek zehaztu dutenez, plan berri horregaz, besteak beste, bizikleta garraio-bide gisa erabiltzea sustatu gura dute. Hala ere, horrek zalantzak sortu ditu Goierri inguruko auzokide askoren artean, ez dakitelako sortuko duten bidegorri berri horrek noraino egingo duen konexioa. Horrez gainera, autobus-geltokiaren kokalekuaz, zaborrak uzteko tokiaz eta proiektua bera gauzatzeko moduz kezu agertu dira auzokideak, eta ez dute baztertzeko Udalak aurrera eraman gura duen plan horri alegazioak aurkeztea. ◀

ETXEBIZITZARAKO ESKUBIDEA BERMATZEA

Alokairuko etxebizitza eskuragarrien parke publikoa eta cohousing-a sustatzea

AUZOEN ARTEKO GARRAIO JASANGARRIA

Getxobus elektrikoak eta doakoa, auzoak lotzeko

ZERBITZU PUBLIKOAK, HURBIL

Haurreskola publiko bat eta adinekoentzako zentro bat herrigune bakoitzean

XABIER BENITO ZILUAGA
Getxoko alkategaia



ENERITZ DE MADARIAGA
Bizkaiko Ahalduen Nagusirako hautagaia

Bidalieazkiguzu zure proposamenak posta honetara:
proposatas@podemos.eus

elkarrekin
Podemos

Barrika Lotura itsasoagaz**Horma-irudia egin dute Barrikako frontoiaren atzealdean**

Itsasoari buruzko horma-irudi alegoriko bat eginez zaharberri du Barrikako Udalak frontoiaren kanpoaldeko alboko pareta. Udalaren asmoa azpiegitura horren kanpoaldea saneatzea izan da, eta,aldi berean, Itziar Unibaso Kultura, Berdintasun eta Gizarte Ongizateko zinegotziak esan duenez, «Barrikak itsasoarekin beti eduki duen lotura gogora ekartzea». 28.268 euro inbertitu ditu Udalak horma birgaitzeko eta albo horren 240 metro koadroak (30 x 8 metro) errotulatzeko, 3 mm-ko lodiera duten Dibond motako xaflakaz. Horiek kanpoalderako tintakaz inprimatu dituzte. ◀

Barrika Idazmen zaletasuna**Barrikako Udalak Mikroipuinen Lehiaketa antolatu du**

Barrikako Udaleko Kultura Sailak, Gertuko Auzokide Elkarteagaz lankidetzan, Mikroipuinen Lehiaketaren edizio berri bat jarri du abian, «irakurketa-erikiko eta idazketarekiko interesa sustatzeko helburuarekin», Itziar Unibasok, Kultura, Berdintasun eta Gizarte Ongizateko zinegotziak azpimarratu duenez. Uribe Kostako 18 urtetik gorako edozein pertsonak parte har dezake horretan. Gaia librea izango da, eta «kode» hitza edo horretatik eratorritako beste edozein berba sartu beharko dira aurkezten diren lanetan. ◀

Gorliz Udal-administrazio elektronikoa**Udal-kudeaketak arintzeko kutxazain berria jarri dute**

Gorlizko Udalak jarritako gailu berriari esker, herritarrek udal-administrazioko hainbat izapide egin ahal izango dituzte, modu horretan, administrazio-kudeaketak arinduz eta administrazio elektronikoa irisgarriago bihurtuz.



Makina berria. © GORLIZKO UDALA

Kutxazain berria erabilera errazekoa eta intuitiboa da, eta Herritarren Arreta Zerbitzuko (HAZ) instalazioen erabilera-ordutegi bera izango du, astelehenetik barikura, 08:00etatik 14:00etara. Beste abantaila batzuen artean, kutxazain horri esker herritarrek ordaintzeko dituzten moduak zabaldu eta hobetu egingo dira, bulegoetan horrelako izapideak egiteko arreta presentziala eta itxaronaldiak mu-

rriktuz eta udal-sarrerren kudeaketa ere optimizatuz.

Daborduko makina martxan dago eta hainbat izapide egiteko aukera ematen du, hala nola errolda-ziurtagiria eskatzea edo hainbat udal-zerga ordaintzea, OHZ edo ibilgailuen gaineko zerga. Kutxazainak ukipen-pantaila bikoitza, txartel-irakurgailua, dokumentu-eskanerra, A4 inprimagailua, barra-kodeen irakurgailua (zergak ordaintzeko) eta abar ditu. ◀

ARANTZA ETXEBARRIA
Hertz-Klinika

Odontologia orokorra
Ortodontzia

Periodontzia
PADI

Bidebarri 27, behea eskuina · ALGORTA 944 307 696

GetxoGas

Urteko 365 egunetan gaude zabalik

- Garbiketa gunea
- Denda eta okindegia
- GnG tailerra
- Solaguren Jatetxea

☎ 944 301 500

📍 Getxo eta Berango artean

GetxoGason Euskararekin bat!

Gorliz Oinezkoak eta bizikletak lehenesteko egistamoa

Hiri Mugikortasun Iraunkorreko Plana onartu du Gorlizko Udalak

Martxoaren 21ean egindako osoko bilkuran, Gorliz «jasangarriagoa eta gizatiarragoa» egiteko asmoa duen plana onartu zuen Udalak. Dokumentu horren helburua da mugikortasun iraunkorrerako lortzea, oinezkoentzako eta bizikletentzako ibilbideei lehentasuna emanez. Hiri Mugikortasun Iraunkorreko Planaren (HMIP) xedea da ingurunearekiko eta gorliztarren osasunarekiko begirune handiagoa duten desplazamendu-alternatibak sustatzea. Horregaz, Gorlizko Udalak 2030

«HMIP funtsezko tresna da 2030 Agendarekin dugun konpromisoan, Gorliz eta bere ingurunea bizitzeko gune egoki eta atsegina bihurtzeko»

NAGORE UTXUPI
GORLIZKO ALKATEA

Tokiko Agendan hartutako konpromisoei erantzun gura die.

Bertan, Garapen Iraunkorreko 17 Helburuak (GJH) jasotzen dira. Plan hori epe labur eta luzerako ibilbide-orria da, datozen hamar urteetan udalerriko mugikortasunaren lehentasunak eta jarduketak zehazten dituena. «HMIP funtsezko tresna da 2030 Agendarekin dugun konpromisoan, Gorliz eta bere ingurunea bizitzeko gune egoki eta atsegina bihurtzeko», adierazi du Nagore Utxupi alkateak. ◀



Euskara hauspotzeko Mintzodromoa

Nazioarteko Ahozotasunaren Egunaren baitan, martxoaren 20an, Uribe Kostako Mankomunitateak Plentziako Jai Alai frontoian antolatutako Mintzodromoa, eskualdeko euskararen erabilera sustatzeko asmoz.

Urduliz Naturagaz hezten

80 haur inguruk parte hartu dute Haurtzaroko Basoa egitasmoan

Tokiko eta inguruertako 80 haur baino gehiagok zuhaitz autoktonoak landatu zituzten martxoaren 12an, Urdulizen, Haurtzaroko Basoa proiektuaren barruan. Neska-mutilek urkiak, haritzak, arteak eta lizarrak erein zituzten 27.000 metro koadroko udal-lursail batean; kimu berri horiek iaz jarritako 150 zuhaitzei batu zaizkie, eta asmoa da baso-autoktono bat berreskuratzea. Horretarako, besteak beste, eremu horretan, udal-langileek baso hostotsu hori osatzeko beste 900 arbola ere landatu dituzte hilabeteotan. ◀

Iñaki Bitxitegia

Montblanc, Longines eta TagHeuer agentzia ofiziala

Villamonte plaza 3 Algorta Teltetxe 1
94 430 23 45 94 460 27 41

bai
euskarari

irati
MODA GAZTEA ETA ARROPAK

94 491 12 71
iratialgorta@gmail.com
Torrene, 2 48991 – ALGORTA

Icazaren sekretuak



Berangoko Udalak Moreaga parkean dagoen Icaza jauregiko kotxetegiak eraberritzeko lanak abiatu ditu orain dela gutxi, bertan udal-ludoteka eta kafetegi bat egiteko. Horrez gainera, jauregia bera herritzeko aurreproiektua garatzen ari dira uneotan; hori dela eta, gaur egun eraikin horrek barrutik duen itxura erakusteko argazki-esposizioa ikus daiteke egunotan Moreaga parkean. Hona hemen erakusketa horrek agerian utzitako sekretuen lagin txiki bat.













Irune Ruiz Ziarreta EHUko irakaslea eta ikertzailea

«Immigrazioa gure gizartearen egitate estrukturala da»

Uribe Kostako biztanleriaren % 10 inguru atzerrian jaio da. Datu horren atzean, jatorriak, istorioak eta, azken finean, jaioterrira utzi behar izan duten pertsonak daude. Errealitate hori hobeto ulertzeko Ikuspegi Immigrazioaren Euskal Behatokira jo dugu, eta Irune Ruiz Ziarreta aditu sopoloztarragaz batu gara eskualdeko fenomenoari buruz sakontzeko.

TESTUAK: **ANDER ZARRAGA** ARGAZKIAK: **HODEI TORRES** ▶

Euskal Herria urte luzez «anomalía» bat izan dela adierazi zuen Arkaitz Fullaondo zure lankideak 2018an egin genion elkarrizketa batean. Gaur egun errealitate multikultural horretatik hurbilago gaudela esango zenuke? Euskadiko azken urteetako datuei erreparatzea besterik ez dago aniztasun soziokultural gero eta handiago baten aurrean gaudela ikusteko, eta horrek gora egingo du, atzerriar jatorriko etorkin gehienek Euskadin geratzeko asmoa dutelako. Gaur egun, INEren datuen arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) biztanleen % 11,5 inguru atzerriar jatorrikoa da. Arkaitz Fullaondok esan zuen bezala, 2000. urtera arte, gutxi gorabehera, ez ginen hasi atzerriar jatorriko pertsonen etorrera ikusten. Oparoaldi horretatik eta hazkunde ekonomikoko garaitik gaur arte, atzerriar jatorriko pertsonen etorrera etengabea izan da, krisi garaietako jaitsiera logikoekin, dela ekonomikoa, dela azken pandemia hau. Hala ere, immigrazioa egitate estrukturala da, eta zantzuek adierazten dute immigrazioa jasotzen jarraituko dugula datozen urteetan, orain arte bezala.

Testuinguru horretan, nolakoa da gaur egun immigrazioaren egoera Uribe Kostan? Erroldako azken datuen arabera (INE, 2022), gaur egun, Uribe Kostan 17.296 pertsona atzerriar jatorrikoak dira, hau da, biztanleria osoa-

Etorkizuneko egoera

«Migrazioa fenomeno estrukturala da, ez koiunturala; 20 urte baino gehiago daramatzagu horri buruz hitz egiten eta egoera aztertzen. Ez dezagun ahaztu harrera, baina, batez ere, Euskadin geratzeko eta seme-alabentzat etorkizun hobe bilatzeko iritsi diren familiei buruz ari garela. Pertsona atzerriar iristen jarraituko dira, baina hemen urteak daramatzatenak dagoeneko finkatuta daude, gure gizartearen parte dira. Beraz, guztion erantzukizuna da euskal gizarte askotariko batean bizi garela sentiaraztea»

ren % 9,97. EAEn lehen aipatu dugun ehuneko bako bako bako txikiagoa da. Halaber, datuek erakusten dutenez, Uribe Kostan, oro har, Euskadin baino migrazio feminizatuagoa dugu; zehazki, atzerriar jatorriko pertsonen % 56,3 emakumeak dira. Horren arrazoa da, hein handi batean, lan feminizatuen eskaera handia dagoela, hala nola etxeko zerbitzua eta zainketa-lanak.

Udalerri dagokionez, Getxok eskualdeko atzerriar jatorriko biztanleen % 47 biltzen du. Getxo, Leioa eta Erandio dira guztizkoaren ia % 85 duten hiru udalerriak. Immigrazioa Uribe Kostan kokatzen amaitzeko, eskualdeko etorkin gehienak latinoamerikarrak direla esango nuke, Boliviakoak (% 12,9) eta Kolonbiakoak (% 11,1) batez ere. Horien kasuan, ia % 60 emakumeak dira.

Pandemiak zer nolako eragina izan zuen eskualdeko joan-etorrien fluxuetan? Denok dugu gogoan COVID-19aren pandemiak eta osasun-krisi gogorrak eragin dituen ondorioak. Immigrazioa ere ez da egoera horretatik kanpo geratu. Krisi guztietan, 2008koan edo azken honetan, gizarte-desberdintasunak areagotu egin dira, eta Euskadin bizi diren migratzaileak krisi horien ondorio ekonomiko eta sozialak pairatzeko arrisku handiena duten kolektiboetako bat dira, bai egiturazkoak, baita sanitarioak ere. Horrek ere eragin

du atzerritar jatorriko pertsonen etorrera nabarmen murriztea, Euskadin % 73,4ko atzerakada izan baita pandemiaren aurreko urteekin alderatuta. Uribe Kostan ere geldialdia gertatu da etorreretan urteotan, eta atzerriko jatorriko biztanleria % 9,7-9,9an mantendu da. Azken urte honetan susperraldia eta gorakada nabaritu dira, % 10eraino iritsi baitira.

Ikuspegik argitaratu duen Zabaldu txostenean azpimarratzen denez, migratzaileen lanaren eta etxebizitzaren errealtatea eza-gutzeak aurreiritziak eta estereotipoak berrikusteko eta sentsibilizazioa bultzatzeko lagun dezake. Nolakoa da gaur egun etorkinekiko dugun jarrera? Bai, martxoan *Zabaldu* monografikoa aurkeztu eta topaketa bat egin zen. Bertan, hainbat zientzia-arlotako adituek desberdintasuna sortzen duten eta kolektibo, gizarte-talde eta pertsona jakin batzuei eragiten dieten ardatzei buruzko ondorioak aurkeztu zituzten. Lehen zenbaki honen helburua da Euskadiko aniztasunari buruzko hausnarketa soziologikoa egitea, zentzurik zabalenean. Kapitulu horrek aukera eman digu desberdintasuna zehazten duten hiru eremu nagusietan sakontzeko: lanekoa, bizi-tegietakoa eta hezkuntzakoa. Atzerritar jatorriko biztanleriak aurre egin behar dien zailtasun ekonomikoek –beren artean elikatzen diren zailtasunak– ondorio garrantzitsuak dituzte: bizileku-baimenak berritzea, familia berriz elkartzea, erroldan sartzea, pilotzea, etab. Atzerritarrek etxebizitza-jabetzan nahiz alokairuan eskuratzeko dituzten zailtasunak ere aztertu dira, eta lan-merkatuan, gainera, arazoa larriagotu egiten da emakumeak edo gazteak badira.

Gure gizarteak talde horien aniztasunari buruz dituen pertzepzio eta jarrerari dagokienez, azpimarratu behar da euskal gizarteak oso irekitasun-maila esanguratsua duela, bai talde horietako pertsonekin dituen harremanei dagokienez, baita aniztasuna sustatzearen alde agertzen denari dagokienez ere. Hala ere, oso deigarria da irekitasun-maila hori murriztu egiten dela beren seme-alabek azterlanean aipatutako taldeetako pertsonekin izan ditzaketan harreman sentimentalei buruz galdetzen denean.

Azken urteko inflazioak eragin nabarmena izan du eroste-ahalmenean, pertsona mi-gratuei nola eragiten die horrek? Gaur egun pairatzen ari garen inflazio ekonomikoa pertsona guztiok nabaritzen dugu, baina ez digu guztiok berdin eragiten. Batez ere, jatorrizko herrialdeei dirua bidaltzeko hilerio aurrez-ten duten atzerritar jatorriko familiei prezio

% 10

inguruan kokatzen da gaur egun Uribe Kostako atzerritar jatorriko biztanleria; EAEko batz bestekoa baino puntu eta erdi baxuagoa.

17.296

atzerritar bizi dira Uribe Kostako 10 udalerrietan, INEren azken datuen arabera.

% 56,3

emakumeak dira eskualdeko atzerritar jatorriko biztanleriaren artean. Gehienak etxeko zerbitzuetan eta zainketa-lanak egiteko dagoen eskari handiagatik datoz.

% 85

Getxo, Leioa eta Erandio artean banatzen dira, udalerrri horietan baitago pertsona migratuentzako aukera gehien.

% 5

baino gutxiago da EAEn egoera irregularrean dagoen etorkinen kopurua.

altuek birritan jotzen diete: Euskadin duten etxean eta jatorrizko herrialdean.

Zeintzuk dira etorkinek lan-munduan sartzeko dituzten aukerak? Lan-sektoreen arabera. Gaur egun, EAEn lan egiteko adinean bizi diren atzerritar gehienak lanean ari dira edo lan bila daude. Hala ere, atzerriko biztanleriaren langabezia-tasa % 28 ingurukoa da, bertako biztanleriarena baino nabarmen handiagoa. Hori, neurri handi batean, atzerritar jatorriko pertsonak bilatzen dituen sektorearen arabera da. Euskadin, enplegu gehiago dago lanpostu kualifikatuetan, eta atzerritarrei kosta egiten zaie horrelako lanak lortzea. Migratzaile gehienak zerbitzu eta industrian sartzen dira; halaber, Espainian, eraikuntzaren eta ostalaritza-zerbitzuen sektoreek enplegu handia eskaintzen diete etorkinei. Hori batez ere gizonek egiten dute; izan ere, emakumeek zainketa-lanak eta etxeko sektoreko lanak nonahi aurkitzen dituzte, eta Euskadin enpleguen herena osatzen dute horiek. Uribe Kostan etxeko lanen eta zainketen sektorearen eskaintza oso handia da, bai biztanleriaren zahartzeagatik, bai horrelako enpleguak dituzten familien beharagatik.

Gurean, atzerritar gehienak Latinoamerikatik etorritakoak dira, batez ere, Bolivia, Kolonbia edo Paraguitatik. Zergatik? Latinoamerikako emakumeek eskaera bat betetzen dute: etxeko zerbitzuan eta zainketa-lanak egitea. Jatorri gehiago daude, baina Uribe Kostan eremu erresidentziala eta maila sozio-ekonomiko altukoa da eta horrek eragin handia du; beraz, hemengo gizartearen eskariaren arabera da. Hori dela eta, Kolonbiako eta Boliviako emakume gehiagok dute migratio-tradizio handiagoa hemen, eta horrek dei eta berrelkartzea ere eragiten du.

Udalerrien arabera ere aldatzen dira etorkinen jatorria; adibidez, Leioan eta Urdulizen marokoar gehien daude eta Barrikan europar asko dago. Zeintzuk dira horretan eragiten duten faktoreak? Herri txikietan bizi diren atzerritarrei buruz ari gara. Komentatzen dituzun europarrei buruz, agian, maila sozioekonomiko eta hezkuntza ertain-altua dutenei eta lanpostu kualifikatuetan lan egiten dutenei buruz ari gara. Normalen, EAEko biztanleriaz ari garenean gure imajinarioan dugunarekin alderatuta, profil hori pixka bat desberdina da. Eta Leioan eta Urdulizen kasuetan, adibidez, enplegua da erakargarri nagusia; ondo komunikatuta dauden udalerriak dira horiek eta, ondorioz, lana aurkitzeko eta



Besteak beste, Irune Ruiz Soziologian eta Merkatu Ikerketarako Tekniketan lizentziatua da, eta Gizarte Ikerketa Aplikatuan Graduondoa egin du EHU.

familiarekin eta familia-sarearekin egoteko aukera duten eremuetatik gertu daude.

Getxon, filipinarren kasua deigarria da...

Bai, hala da; duela urte askotatik Estatu-ko komunitate filipinarrak handienetako bat dago bertan. Esan bezala, Uribe Kosta osoan feminizazio-tasa handia dago atzerritar jatorriko biztanleen artean. Zehazki, Getxo bereziki nabarmentzen da zaintza-zerbitzuetan, adinekoen eta haurren zaintzaren lan-nitxoetan. Filipinetako emakumeak haurrak zaintzeko eta garbiketako lan horietan biltzen dira batez ere. Eskaria badago, eta leku sendoa dute herrian.

Etorquinek zeren arabera erabakitzen dute hemen errotu edo urte batzuen buruan euren jaioterrira bueltatzea? Zeintzuk datu maneiatzen dituzue horren inguruan? Oro har, jatorrizko herrialdeetatik alde egiteko arrazoia araberakoa da. Baina EAEn bizi diren atzerritar jatorriko biztanle gehienek, bost urteren buruan galdetu zaienean, Euskadin biziko direla diote. Hortik epe luzeagora dezente jaisten da portzentajea. Baina fami-

«Enpleguarekin batera, hezkuntza integratuzko funtsezko tresna da, eta erakundeek ikasgeletako errealitateari hobeto erantzuteko ikuspegia duen hezkuntzaren alde egin dute, ezberdintasunak aberasgarriak baitira. Baina erronka asko daude aukeraberdintasuna bermatzeko»

liarekin badaude eta seme-alabak hemen hazten ari badira, haien helburu nagusia da eurei etorkizun hobea ematea eta Euskadin ikastea eta lan egitea. Agian, zaharragoak direnean itzuliko dira; adibidez, Extremadurako jende asko, hemen bizitzen zena, erretiro-adinean euren jaioterrira bueltatu da. Azkenean, badu nolabaiteko paralelismoa.

Zerk baldintzatzen du etorkinen egoera erregularizatzeko prozesua, eta nolakoa da hemen dauden etorkinen batez besteko egoera? Erregularizazio-prozesuan zenbait baldintza bete behar dira, hala nola hiru urtez egoera administratibo irregularrean egotea, eta hemen erroldatzea oso garrantzitsua da. Gizartean errolda da ohikoena, eta orain ere prestakuntzan ari dira ahalegintzen asko. Halaber, lanpostu bat lortzea ere oso garrantzitsua da. 2018ko AEIren –Estatuko Ikerketa Agentzia– arabera, etorkinen % 5 baino gutxiago dago egoera irregularrean EAEn; ez gara ari irregularren poltsa handi bati buruz, eta, zentzu horretan, Latinoamerikako jatorria da bere migrazio-tradizioagatik erregularizazio handiena lortu duena. ◀

Gorka Aurre Urtzaa Lekturaliako zuzendaria

«Irakurketaren arazoa ez da konponduko metodoa bera errotik aldatzen ez bada»

Irakurketa eraldatu beharra dagoela dio Gorka Aurrek. Liburu artean aurkitu dugu Getxoko epaitegien ondoko Lekturalia egoitzan; izan ere, irakurketa- eta ikasketa-metodo eraginkorrak, besteak beste, irakasten dituen ikasgune horretako zuzendaria da. Zuzenbidean Lizentziatua, Neurotrainerra, idazlea eta Goi Mailako Irakurketan aditua dugu.

Ohiko irakurketak arazo ugari sortzen dituela diozu. Zergatik? Ohiko irakurketak burmuinari lan asko alferrik eragiten dio etekin gutxi lortuz. Ikasleen % 90ak, ohiko irakurketari esker, irakurritakoa ez du ulertzen, irakurketa oso geldoa du, ahoskera txarra, akatsez jositako ortografia, hiztegi urria eta mintzabide murrizta. Arazo horiek ikaslearen eremu akademikoan, pertsonalean eta emozionalean ere zuzenean eragiten dute. Egia esan, ondo irakurtzen ez dakienak, ez daki ikasten.

Irakurtzen txarto irakasten dela esan nahi duzu? Ez da irakurtzen irakasten. Irakurtzen jakiteko urrats asko menderatu behar dira eta ez da hori gertatzen. Irakurtzen irakatsi baino dekodifikatzen irakasten da. Irakurketa ez da ikastetxeen ez norbanakoen lehenetsua. Ikasleen irakurketa-egoera oso larria dena jakin arren, Ikastetxeek irtenbiderik emateko gai ez direnez, gurasoei egozten die erantzukizun osoa. Horrela txarto goaz. Orain 40 urte irakasten zen metodologia berbera irakasten



Irakurtzeko eta ikasteko metodo eraginkorrak irakasten ditu Aurrek. ANDER ZARRAGA

LAN MENTALA
«Ikaragarria da buruan zenbat eta zer nolako jarduera mentalak garatzen diren irakurtzeko prozesuan, burmuineko ia atal guztiak aktibatzen baititu»

da eta hori ez da bidea. Ohiko irakurketa erabat zaharkituta dago eta guztiz geldoa, ulermen urriaren eragile eta arretarik ezaren eta kontzentrazio hutsalaren sustatzaile da. Irakurketa-paradigma errotik eraldatu behar da eta hori da Lekturalian dagiguna: Goi Mailako irakurleak, erabateko ulermenaren jabe direnak trebatzen ditugu; hilero gutxienez 10 liburu irakurtzeko gai direnak.

Eta hori nola lortzen da? Hilero 10 liburu edo gehiago irakurtzeko, lan asko egin behar da







ERDIGUNEAN ZU

SANIKOLAS.EUS
Areneazpi Kalea, 15 (48991)
Getxo, Bizkaia

baina litekeena da. Horretarako ohiko irakurketa tubularra bertan behera utzi eta ikuspegi espaziala erabiliz, hau da, irakurri beharrik gabe informazioaz jabetu eta erabat ulertzeko teknikak barnertzeko prozesua garatu behar da. Dena dela, irakurketari hitzez garrantzi handia ematen zaion arren, egitez kontrako jarrera azaltzen du jendeak. Irakurketa garrantzitsua dela esaten da hainbatetan baina ekintzek erakusten dute esanaren eta eginaren arteko inkoherentzia nabarmena. Egia esan, oso gutxi irakurtzen da eta irakurritakoaren kalitatea oso urria da. Zoritzarrez, guraso eta irakasleak euren seme-alaba edota irakasleengan, hurrenez hurren, arazo larriak agertzen direnean baino ez dira garbi erantzen, gehienetan berandu baina.

Eraldaketa hori hezkuntzatik hasita egin beharko litzatekeela uste duzu? Hezkuntzara etorrira, irakasleen irakurketa-gaitasuna ere, beste ezertan hasi aurretik, errotik eraldatu beharra dago. Irakasleek, ikasleentzako eredu izan behar dute eta irakurketan ez da hori gertatzen. Irakasleen irakurketa-gaitasuna ohiko irakurleen multzoa osatzera datorren biztanleriaren % 45ak duen batezbesteko ratioaren berdina da. Ikastetxeek, ikasleak goi mailako irakurle bihurtzen ez dituzten bitartean, ez dute kalitatezko hezkuntza-eskaintza dutena iragartzetik. Ikastetxeetan irakatsitako irakurketak sakoneko arazo larriak besterik ez dizkie ikasle eta gurasoei sortzen. Lehen Hezkuntzan eta Bigarren Hezkuntzan –baita Batxilergoan eta Unibertsitatean ere– diren arazoetako batzuk hauek dira: ulermen oso urria, irakurketa geldoa, motibaziorik eza, autoestimua- ren suntsiketa, ikasketa-eragozpenak, arreta murrizta, kontzentrazio ahula etab. Eta arazo horren jakinean izanik, ikastetxeek ezer egin gabe jarraitzen dute.

«Jendeak ez du irakurketa planifikatzen, baina irakurketa kirola bezalakoa da, aurretik antolatzen ez baduzu ez du ezertarako balio. Horren ordez logarri bezala irakurtzen dutenek, asko jota bost edo sei orrialde irakurriko dituzte egunero. Zenbat egun beharko ditu bada horrek 500 orrialdeko liburu bat irakurtzeko? Hori ez da efizientea. Irakurketari ez zaio daukan garrantzia ematen»

Irakurketa entrenatu egin behar dela esango zenuke? Bai, jakina. Lehendabizi, ohiko irakurketa baztertu behar da. Ondoren, irakurketa-maila jasoa izateko paradigma berria barnerratu. Azkenik, etengabeko hobekuntza lortze helburuz, egunero, dagozkion ariketak eginez jarraitutasunez entrenatu behar da. Guzti horren ondorioa, hauxe: irakurri beharrik gabe irakurtzen ikastea.

Baina hori nola izan daiteke? Ohiko metodologia errotik eraldatu ondoren, ikuspegi periferikoa eta espaziala sakon landu behar dira eta, bestalde, burmuinari informazioa bere osotasunean ematen irakatsiz, ulermen jasorako prozesua garatzen dugu, irakurketa eraginkor eta jasoa lehenbailehen abiarazte asmoz. Lekturalian, edukiak irakurketa-paradigma berri batez, ikusiaz batera eta irakurri beharrik gabe erabat ulertzen irakasten dugu. Irakurketa klasikoak burmuinari lan eskerga eskatzen dionez, lehenbailehen burutik ezabatzea hobe. Ideiak multzoka ikusiz ulertu behar dira, horrela lan askoz gutxiago eginez etekin askoz hobe lortzen baita, baina gaitasun hori ez da goizetik gauera lortzen, ahalegin handiz eta dedikazio etengabeaz baizik.

Zein da irakurketaren osasuna? Gero eta larriagoa. 2022an, aisialdian ia egunero, biztanleriaren % 45ak bakarrik irakurri du. Bestalde, % 23ak lan-ikasketa irakurketak bakarrik egin ditu eta % 32ak ez du ezer irakurri. Aisialdian % 45ak zertxobait irakurri du; % 55ak ezer ez. 2022ko batezbestekoak, hauek: aisialdiko irakurleek hilero irakurria: 0,83 liburu, astero sei ordu. Beraz, hilero ez da liburu triste bat ere irakurtzen. Norbanako bakoitzaren asteroko batezbesteko telebista-kontsumoa: 22:10 ordu. Bakoitzak bere ondorioak atera ditzala.



KONFIANTZAZKOA ETA HURBILA

- 0-16 adin tartea.
- Euskara eta euskal kultura onarri.
- Ingelesa Haur Hezkuntzatik.
- Guraso kooperatiba.
- Herritarra eta eraldatzailea.
- Autobus zerbitzua 2 urtetatik aurrera.
- Bertako janaria, ikastolan sukaldatua.
- Proiektu berritzaileak: Konfiantzaren pedagogia, EKI, KiVa...
- Irakasleen etengabeko prestakuntza eta inplikazioa.



Lan-arriskuak prebenitzen trebe

Politeknika Txorierririk lanbide-heziketako ikasleei Lan Arriskuen Prebentzioari buruzko ezagutzak transferitzea sustatzen du errealitate birtualaren bidez.

Joan den martxoaren 23an Derioko ikastetxean burututako errealitate birtualeko teknologia-lehiaketan parte hartu zuen Politeknika Txorierririk, Estatuko beste hiru ikastetxegaz batera: Burgosko Simon de Colonia LHII, Burgosko Enrique Florez BHI eta Goierri Eskola. Horretan, ikasleek Laneko Arriskuen Prebentziorako (LAP) praktikak jorratu zituzten, errealitate birtualeko simulagailuak eta «gamifikazioan» oinarritutako ikaskuntza-metodologia erabiliz.

LUDUS TECH SL enpresak lagundu du proiektu horretan, eta aholkularitza eta prestakuntza eskaini ditu errealitate birtualaren eta arriskuen prebentzioaren esparruan.

Ikasitakoa praktikan jartzeko, joan den martxoaren 23an, Politeknika Txorierririk lehiaketa bat antolatu zuen. Bertan, errealitate birtualeko teknologia erabili zuten, eta ikasleek laneko arriskuak eraginkortasunez eta modu entretenigarrian prebenitzeko trebetasunak erakutsi zituzten.

Lehiaketa suteak itzaltzeko agertoki batean oinarritu zen. Bertan, ikasleak «suhiltzailez jantzi» ziren su mota desberdinak ezagutzeko eta egoera horiei aurre egiteko. Hala, ikastetxe bakoitzeko sei ikasleek parte hartu zuten, entseguak egin eta egoera ezberdinetan trebatu ondoren, hala nola plantako arriskueta, altuera-



Laneko Arriskuen Prebentziorako praktikak errealitate birtualaren bidez jorratu dituzte.

LEHIAKETA

Joan den martxoaren 23an, Estatuko beste ikastetxe batzuek batera, trebetasunak eraginkortasunez erakusteko errealitate birtualeko lehiaketa egin zuten Derion.

ko lanetan eta arrisku elektrikoetan. Simon de Colonia zentroak irabazi zuen lehiaketa, «bizitza asko salbatuz».

Kontuak horrela, Politeknika Txorierririk LAP praktiketan erreferente bihurtu da, eta teknologia berrien eta errealitate birtualaren bidez gaiari buruzko ezagutzak lanbide-heziketako ikasleei helaraztea sustatu du.

Azkenik, nabarmendu behar da Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioari aurkeztutako proiektuari esker errealitate birtualeko laborategi bana (RV) ezarri dutela parte hartu duen ikastetxe bakoitzean. Laborategi horrek beharrezkoak diren elementu guztiak ditu ikasleek etorkizunean arriskuak prebenitzeari, osasunari eta ingurumenari buruzko praktikan trebetasunak eskuratzen jarrai dezaten.

POLITEKNIKA TXORIERRI

hegan
egiteko aukerak

Eman izena!
www.politeknikatxorierrri.eus

Batzilergoa eta Lanbide Heziketa
Bachillerato y Formación Profesional

HETEL

Eskualdeko zentro erreferentea

Fadura LHII ikastetxeak 40 urte baino gehiago daroatza kalitatezko zerbitzua eskaintzen, eta eskualdean enpresen eta inguruaren erreferentea izatea lortu du. Gazteak arlo teknikoan prestatzea da zentroaren helburua, beti ere balioetan oinarritutako hezkuntza bat eskainiz, lan-munduan edo beste ikasketa bazuetan erraztasunez integra daitezzen.

1980tik daroa ikastetxeak eskaintza zabal ematen lanbide heziketan: goi- eta erdi-mailako heziketa-zikloak, eskaintza partziala, heziketa duala, enplegurako formakuntza, zereginen gela... Algortako Fadura inguruan dago, garraio-zerbitzu publikoetatik hur. Irakas-baliabide eta instalazioei dagokienez, ikastetxeak kalitatezko ekipamendua eskaintzen du, eta ikasleen eta enpresen asebetetzea urtez urte handitzen doa, horien beharrazanez erantzunez.

Urbe Kostan erreferentea den ikastetxe honek eskura dauzkan baliabide guztiak erabiltzen ditu: errendimendu handiko gelak, metodologia berritzaileak, teknologia aurreratuena... Gainera, ikasleek programa ezberdinetan parte hartzeko aukera daukate; adibidez, lan-praktikak inguruko enpresetan ez ezik, atzerriko enpresetan egin ditzakete Erasmus+ programaren bidez, edo ikasi eta lana aldi berean bateratu DUAL sistemak ematen dituen aukera ezberdinen bitartez.

Laster, apirilaren 24tik maiatzaren 4ra bitartean, erreferentziatzko zentro honek eskaintzen duena hurbiletik ezagutzera emateko ate irekien jardunaldiak egingo ditu. Horietan partu hartu gura izanez gero, eman izena www.fadura.eus webgunean. Zain dituzu!



Hezkuntza-eskaintza

Goi-mailako heziketa-zikloak

- Automatizazioko eta robotika industrialia
- Fabrikazio mekanikorako produkzioaren programazioa
- Haur-hezkuntza
- Osasun-dokumentazioa eta administrazioa
- Gizarte eta kirol animazioko eta irakaskuntza

Erdi-mailako heziketa-zikloak

- Telekomunikazio-instalazioak
- Mekanizazioa
- Karrozeria
- Ibilgailu automobilen elektromekanika
- Erizaintzako laguntzailea
- Osasun-larrialdiak

Ate irekiak:

- Apirilaren 24tik maiatzaren 4ra
- Aldez aurretik izena eman beharra dago.

Eskaintza partziala osasun-larrialdietan

Lanean zein langabezian daudenentzat «Lanbide» ikastaroak

Zereginen gela

BirtLH: Lanbide heziketa birtuala osasun-larrialdietan

Lan-kompetentziak egiaztatzeko prozedurak

Info+: IDAZKARITZAN: 08:30etik 14:00etara egunero, eta 15:30etik 17:00etara astelehen, martitzen eta eguenetan. ONLINE: www.fadura.eus

Lanbide-Heziketako Ikastetxe Integratua



Centro Integrado de Formación Profesional

ATE IREKIAK/ PUERTAS ABIERTAS

Apirilaren 24-tik maiatzaren 4-ra

Del 24 de abril al 4 de mayo



LAN POLTSA PROPIOA

Fp

BOLSA DE TRABAJO PROPIA

ESKADI

LANBIDE HEZIKETA DUAL





EUSKO JAURLARITZA

HEZKUNTZA SAIA

GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

Eman izena/ Apúntate:

www.fadura.eus

www.fadura.eus

944 06 90 00

GETXO BIZKAIA

Viki Gonzalez Zeinu-hizkuntzako irakaslea

«Interprete gabezia handia dago EAEn»

Erandion A1 mailako zeinu-hizkuntzako klaseak irakasten aritzen da Viki Gonzalez. Duela 20 urte inguru kuriositate hutsagatik hasi zen mintzaira hori ikasten, eta, gaur egun, oraindino ere, zeinu-hizkuntzaren normalizazioa ezarri ez dela deitoratzen du.

NAHIA MARTINEZ GONDRA

Nola eta zergatik erabaki zenuen zeinu-hizkuntzako irakasle izatea? 1997an, Psikologia ikasten nabilela, zerbait ezberdina egin nahi nuen. Lagun batek kontatu zidan zeinu-hizkuntzako ikastaro bat zegoela Bilboko Goren Elkartearen, eta apuntatzea erabaki nuen. Gogoratzen naiz etxean gurasoek galdetu zidatela ea zergatik ikasi nahi nuen hori, izan ere, garai hartan ez zen batere ezaguna zeinu-hizkuntzaren gaia. Euskal Herrian oso interprete gutxi zeuden, eta gehienak pertsona gorren alabak edota senideak ziren; ni jakin-min hutsagatik apuntatu nintzen.

Ikastaroko maila guztiak gainditzen joan nintzen, eta, oso motibatuta nengoenez, ikasketak horiekin jarraitzea erabaki nuen. Garai hartan, zeinu-hizkuntza ez zen lanbide formalizatu bat, eta, Alacantera (Valentzia, Espainiako Estatuak) joan behar izan nintzen zeinu-hizkuntzako interprete-ikasketak egiteko.

Berandugo, Loiu gorren ikastetxe batean hasi nintzen lanean irakasle gisa, izan ere, iraganean pertsona gorrentzako soilik ziren zentroak zeuden. 1999an ikastetxeetan

Ezjakintasuna

«Gogoratzen naiz etxean gurasoek galdetu zidatela ea zergatik ikasi nahi nuen hori; izan ere, garai hartan ez zen batere ezaguna zeinu-hizkuntzaren gaia»

Aldaerak

«Espainiako Estuaren kasuan, penintsulako tokiaren arabera aldaketa txiki batzuk egon daitezke zeinu-hizkuntzan»

pertsona gorrentzako interprete izateko deitu zidaten, eta ni izan nintzen ikasgelako interprete gisa aritu zen lehenengo pertsona EAE osoan.

Zeinu-hizkuntzak ikasten den lekua araberako aldaerak ditu? Zeinu-hizkuntza ez da nazioartekoa, beraz, herrialde bakoitzak bere zeinu-hizkuntza propioa du. Espainiako Estatuaren kasuan bi daude: Espainiako zeinu-hizkuntza eta Kataluniako zeinu-hizkuntza. Azken hori Katalunian bakarrik erabiltzen da. Hala ere, penintsulako tokiaren arabera, aldaketa txiki batzuk egon daitezke, izan ere, gaztelaniarekin gertatzen den bezala, ez dira hitz berdinak erabiltzen penintsulako iparraldean edo hegoaldean.

Bestalde, Nazioarteko Zeinu-Sistema daukagu, nazioarteko konferentzietarako erabiltzen den sistema. Esan bezala, ez da hizkuntza bat, baizik eta testuinguru burokratikoetan erabiltzen den sistema bat. Horrek ez du inongo aldaerarik, eta denontzako berdina da.

The banner features a yellow background with geometric patterns. On the left, there are four book covers: 'INDAR guztiz maite zaitut', 'LORATU FANFEST BAZABAL', 'ARRAKALEK', and 'BIZI-BIZI'. In the center, the text 'ONGI ETORRI FANFEST' is written in large, bold, pink letters. On the right, a laptop displays a website with a grid of book covers. At the bottom, the text 'IBAIZABAL ★ BATXILERGO BERRIA' is written in bold black letters, flanked by two black diagonal bars.

Zeinu-hizkuntzaren benetako normalizazioan aurrera egin dela sentitzen duzu? Ez, ez dago benetako normalizaziorik. Teorian, pertsona gor guztiek interprete bat izateko eskubidea dute, baina, gero, errealitatean, interprete gabezia handia dago EAEn. Adibidez, pertsona gor batek medikuarengana joan behar badu, 24 ordu lehenago doako interprete bat eskatu behar dio Euskal Gorra Fundazioari. Hala ere, egun batzuetan ez dago interpreterik jende guztiarentzako, eta benetan premiazkoak diren kasuak lehenesten dituzte. Horrenbestez, pertsona gor batek larrialdi bat badu eta Urdulizko ospitalera badoa, esaterako, ez da interpretetik egongo. Halaber, epaitegietan berdina gertatzen da. Gaueko 23:00etan deitzen badizute pertsona gor bat atxilotu dutela esanez, beti ez da posiblea izango norbait joatea, interpreteok ez dugulako eguneko 24 orduan lan egiten. Ondorioz, pertsona gorra ziegan geratu beharko da hurrengo egunera arte, edota interpreteren bat joan arte.



Ikasgeletan interprete gisa aritu den lehenengo pertsona da EAEn. HODEI TORRES

Zergatik dago interprete gabezia hori? Bilbon 15 urtez indarrean egon zen EAE osoko Zeinu-Hizkuntzaren Interpretaziorako Lanbide Heziketa bakarra. Aitzitik, unibertsitate gradu bat sortzeko asmoarekin kendu egin zuten. Ordea, gradu bat egiteak diru asko balio du, eta, azkenean, bertan behera gelditu zen proiektua. Hala, LH horretatik 15 promozio atera ziren EAE osoan, eta gobernuek ziurtzat jo zuten interprete adina zegoela. Baina errealitatea da, gerora, promozio horretako pertsona askok ez dutela interprete gisa lan egin, eta horregatik dago hainbeste-ko gabezia.

Nola eragin die pandemiak eguneroko bizitzan zeinu-hizkuntza erabiltzen duten pertsonen? Astakeria bat izan da, izan ere,

Gabezia

«Egun batzuetan ez dago interpreterik jende guztiarentzako, eta benetan premiazkoak diren kasuak lehenesten dituzte. Horrenbestez, pertsona gor batek larrialdi bat badu eta Urdulizko ospitalera badoa, esaterako, ez da interpreterik egongo»

musukoarekin deskonexio handia egon da. Jendeak normalean ez daki zeinu-hizkuntza, eta pertsona gorra supermerkatuetara, farmazietara edo edozein lekutara doazenean, ez dira joaten beren zeinu-hizkuntzako interpretearekin. Horiek gehiago erabiltzen dira gauza burokratikoetarako. Orduan, pertsona gorra besteekin komunikatzeko ezpainen eta aurpegiaren irakurketan oinarritzen dira, baina aurpegiko keinua kentzen badiezu eta begiak besterik ez badituzte, elkarrizketa osoa galtzen dute. Batzuetan, pertsona gorrek esaten zidaten botikan, esaterako, musukoa jaisten zutela haiekin hitz egin ahal izateko, baina leku gehienetan ez zuten halakorik egiten, beldur handia egon baita. Horregatik, pandemian pertsona gorra bereziki isolatuta sentitu dira.



Martxoaren 27tik apirilaren 21era arte

BATXILERGOA

MATRIKULA ZAITEZ GUREAN

MODU PRESENTZIALEAN:
Martxoaren 27tik 31ra eta
apirilaren 17tik 21era



ander deuna
IKASTOLA

*Biharko mundua
gaur eta hemen*



INTERESA IZANEZ GERO,
BETE HURRENGO GALDETEGIA
ETA HARREMANETAN JARRIKO
GARA ZUEKIN.



www.anderdeuna.eus

Apirila-maiatza

Barrika

Apirilak 16, domeka

Pirata Trail

09:30 | Udaletxetik abiatuta

Tokiko kirol eta kultur jarduerak indartzeko apustu berria.

Berango

Apirilak 9, domeka

Animazio zinema: *Izurde mutikoa*

18:00 | Berango Antzokian

Izurde batzuek itsasoan galdutako ume bat salbatzen dute.

Apirilak 16, domeka

Ipuin kontaketa: *Dei iezadazu Sorgina*

18:00 | Berango Antzokian

Umorea, fantasia, abenturak eta misterio pixka bat, Lur Usabiagagaz.

Apirilak 23, domeka

Umeentzako antzerkia: *Pinochio*

18:00 | Berango Antzokian

Pertsonaia ospetsuaren abentura dibertigarriak.

Apirilak 29, zapatua

Kontzertua: *Memoria*

19:00 | Berango Antzokian

Luis Marianoren omenezko kontzertua eskainiko du Andoni Martínez tenoreak.

Erandio

Apirilak 22, zapatua

Dantza: *Zarra*

20:00 | Merkatu Zaharrean

Telmo Zarraonandia, Athleticeko jokalaria ospetsua omentzen duen dantza.

Apirilak 30, domeka

Kontzertua: Puro relajo

19:00 | Merkatu Zaharrean

Mexikar musikaren erreferente izan den taldea bere 10. urteurrena ospatzen ari da.

Maiatzak 7, domeka

Antzerkia: *Ez naiz inoiz Dublinen egon*

19:00 | Merkatu Zaharrean

Besteen bizipen eta sinemenen onarpenari buruzko komedia garrantza.

Getxo

Apirilaren 21etik 23ra

Algortako Liburu Azoka 2023

Xake plazan

Apirilak 21, barikua

Bakarka musika-zikloa: Demode Quartet

19:30 | RKEEn

Ahots-laukotearen ikuskizuna.

Apirilak 22, zapatua

Bertso-bazkaria

19:30 | Algortako Patzeko Etxean

Miren Amuriza eta Nerea Ibarzabal bertsolariakaz. Izen-ematea, ALBEn.

Apirilak 28, barikua

Antzerkia: *Obsoletus*

21:00 | Muxikebarrin

Lokarturiko Gandhi-ak eta ustezko terroristei buruzko komedia originala.

Apirilak 28, barikua

Kontzertua: Jean Toussaint Quartet

19:30 | Muxikebarrin

Jazzaren historia hurbileko saxo-tenor handienetako bat.

Apirilak 29, zapatua

Nazioarteko Dantza Eguna

11:30 | San Nikolas plazan

Gorliz

Apirilak 16, domeka

II. Udaberri Azoka

10:00 | Elizako plazan

Apirilak 28, barikua

Kontzertua: Thierry Biscary

Kantu Kontari

19:00 | Udaletxeko aretoan

Leioa

Apirilaren 22 eta 23

Txakomic 2023

Mendibile jauregian

Bizkaiko txakolina eta euskal komikia uztartzen dituen ekimena.

Apirilak 22, zapatua

Leioa Kantika Korala:

Istanbulera begira

20:00 | Kultur Leioan

Apirilaren 25etik 30era Istanbulen egingo den World Symposium on Choral Music jaialdian aritu aurretik, Kantikak eramango duen ikuskizuna aurkeztuko du Leioan.

Maiatzak 5, barikua

Kontzertua: Mingo Coloma

Simón Blues express

20:30 | Kultur Leioan

Soinu sendo eta ezberdina duen musika-proposamena blues tradizionalaren ildotik.

Maiatzaren 18tik 21era

XXIII. Umore Azoka

Leioan

Laster informazio guztia HIRUKAn.

Plentzia

Apirilak 9, domeka

Artisautza azoka

10:30 | Ontziola plazan

Apirilak 9 eta 16

Bisita gidatuak: *Plentziako historian zehar nabigatu*

11:30 | Turismo bulegoan

Izena eman beharko da parte hartzeko.

Apirilak 12, eguaztena

Ipuin musikatua: *Alboka*

10:30 | Goñi Portalen

Umeentzako ikuskizuna.

Apirilak 14, barikua

Erakusketa zientifiko-kulturala: *Irulegi eta Algerren eskuen esanahia*

19:15 | Plentziako udal-liburutegian

Javier Quevedo ikertzailearen azalpen teknikoakaz.

Apirilak 19, eguaztena

Berbaldia: *Lurra, jana, lana*

19:00 | Goñi Portalen

Herri Lurrak Elkarte eta Gurgide taldea.

Apirilak 21, barikua

Antzerkia: *Las brujas de Salem*

19:00 | Goñi Portalen

Itzartu Antzerki Taldearen antzezlan.

Apirilak 28, barikua

Dokumentala eta berbaldia:

Apaiz kartzela

19:00 | Goñi Portalen

Xabier Amuriza eta Ritxi Lizartzaren parte hartzeagaz.

Sopela

Apirilak 15, zapatua

II. Boxeo jaialdia

18:00 | Urko kiroldegian

Gizon eta emakumeen borroka amateurrak.

Maiatzak 6, zapatua

Udaberri Jaia

11:00 | Udaletxeko plazan

Meñakoz Kultura Elkarteak egun osoko programa prestatu du bere 20. urteurrenarako.



Cristhiana Mercado


Nongoa
Ocotal, Nikaragua.

Adina
29 urte.

Zertan dabil
Lanean.

Noiz heldu zinen?
2010eko abuztua.

Noiz arte bertan?
Auskalo.



Lurraldeia
Nikaraguako Errepublikak.

Azalera
130.373 km².

Hiriburua
Managua.

Biztanleria
6.300.000 (2018).

Hizkuntzak
Hizkuntza ofiziala gaztelania da, baina ingeles kreolera edota mistikoera ere erabiltzen da estatuko inguru batzuetan.

Moneta
Córdoba.

«Bere etxea zabaldu didan jende oso ona aurkitu dut hemen»

ANDER ZARRAGA ▶

Cristhiana Mercado Nikaraguako iparraldean jaio zen, eta 17 urte zituela etorri zen gurera. Duela 12 urte izan zen hori, eta etortzeko arrazoia nagusia ekonomikoa izan zela dio berak: «Ume txiki bat neukan eta herrialdeko egoera ekonomikoa ez zen oso ona, beraz, etortzea erabaki nuen, nire ahizpa nagusia ere hemen baitzegoen». Hasieran, lana lortu ahal izateko, bere adinari buruz gezurra esaten zuela aitortzen du. «Hasieran oso gogorra egin zitzaidan, eta itzultzekotan egon nintzen, baina gaur egun ez nuke ezergatik aldatuko; jendea gogorra egiten zaio, eta etorri diren ezagun batzuk bueltatu egin dira, ez direlako ohitu», dio Mercado, baina azpimarratzen du bere esperientzia oso ona izan dela eta jende onagaz eta lana aurkitzeko zortea izan duela.

Dioenez, hasieratik deigarria egin zitzaion euskaldunek oso altu egiten dutela berba, «hasieran ez nekien errieta egin ari ziren». Gaine-

ra, etorri zenean ez zekien hemen gazteleraz gain euskaraz ere egiten zela: «Behin, Hondarribian lanean nengoela, Donostiara joan behar izan nintzen eta hiru autobus joan zitzaizkidan, batek ere ez zuelako San Sebastian jartzen, eta nik ez nekien Donostia eta San Sebastian hiri bera zirela; horrelako asko gertatu zaizkit, kar-kar-kar».

Bera Kaixo Nika Elkarteko kidea da, eta hainbat jarduera egiten dituzte datozen etorkinei aholkularitza emateko, herrialdeko elkarteek laguntza emateko dirua bidaltzeko ekintzak solidarioak... «Garrantzitsua da jaioterriagaz elkartasuna mantentzea, askok ez baitute migratzeko aukerarik, eta gu laguntzen saiatzen gara», azaldu du.

Momentuz, ez daki bueltatuko ote den, oso gustura dagoelako hemen, baina bere semea eta gurasoak oraindino Nikaraguan dituela dio, eta, beraz, urteak aurrera egin ahala agian iritzi aldatuko dela uste du. Horrez gain bere herrialdeagaz lotura oso estua izaten jarraitu gura duela dio, asko maite baitu Nikaragua. ◀

Lehen/Orain **Leioako Sabino Arana kalea, 80 hamarkada hasieran**



ITURRIA: LEIHOA.INFO

Uribitakora



ALBE

**Algortako
Bertsolari
Eskola**

TESTUA

Beñat Vidal
Gurrutxaga

DOINUA

Mundu honetan
holako gauzak

ARGAZKIA

Hodei Torres

Labirintoa

*Alarmak txirrin, lepoko mina,
eguna gauaren aurka,
irratia hotz, twitter basati,
lanean ohiko burruka,
lagunak urrun, bikoteari
puzka, umeak oihuka,
oporrak amets, presa, astea
non hasi eta non buka...
Ea, nor ez da inoiz sentitu
bere bizitzan galduta?*

*Jolas guztiek izaten dute
babeslekua, etxea.
Baina askotan ez da erreza
hori ere topatzea.
Behin eta berriz gainditu ahala
oztopo, traba, batxea,
heldu gaitzeke ez bereiztera
aurrea eta atzea,
arazoaren parte delako
irteera bilatzea.*

*Zulo beltzaren amaierako
balizko argi dirdira
badakizu ez dela helduko,
baina hurbiltzen ari da.
Erresilientziak eta denborak
moteldu duzue ziba.
Et, et, et, adi. Fijatu zaitetz:
arazoari, erdira,
ohartzetako, kanpotik ari
zatzaizkiola begira.*

Xumel

«Gure lehen esperientzia EParekin izan zen»

TESTUA: ASIER BARRUETABEÑA RIVALLO
ARGAZKIA: XUMEL ▶

Algortako inauterien bezperan, ezohikoa den giroa bizi izan zuen San Nikolas plazak. Algortako jai batzordeak antolatutako maketa-lehiaketa zela eta, enparantza gaztez bete zen kriston giro musikazalea sortuz. Gaurkoan, bertan parte hartu eta lehen saria irabazi zuen taldea dugu gurekin, Xumel.

Nortzuk zarete Xumel, eta nondik zatozte? Getxoko laukote gazte batek osatzen dugu. Peio, baterian; Jon, gitarran eta ahotsean; Martin, baxuan eta teklatuan; eta Iker, gitarran eta ahotsean aritzen gara. Aurretik kide batzuk elkartu ziren beste talde batean, gerago Xumel sortzeko, 2020an.

Hasieran, ingelesezko bertsioak jotzen genituen eta, gaur egun, gure abesti propioekin ari gara. Gure estiloa rock klasikoa izanda ez gaitu beldurtzen beste generoen tantak gehitzea, eta rock progresiboa, bluesa edota reggaea bezalako estiloekin esperimentatu dugu jada. Aurreko azaroan estudio batean lau abestietako EP baten grabaketari ekin genion, *Framed* izeneko.

Zeintzuk dira zuen influentzia musikalak? Gustu eta erreferentzia musikal desberdinak dauzkagu; punk-, jazz- eta funk-zaleak gara. Baina rockaren munduan denok daukagu elkarketa-puntua.

Hain gazteak izanda, zelan ikusten duzue Euskal Herriko eta zuen herriko musika eszena? Txarto ikusten dugu panorama orokorrean; egia da Euskal Herrian babestuago egon direla rocka eta bere azpigeneroak musika-estilo berrien aurrean, baina geroz eta «minimalistago» egiten ari da musika. Entzuleei eskaintzen zaiona tendentziekin baterakorra izatearekin nahikoa da, eta tendentzia horiek, gure ustez, sinplifikazioz beteriko musika da. Ez du zertan txarra izan behar horrek, noski; konplexutasunak ez zaitu hobeago bihurtzen.

Zelan da rock talde bat sortzea reggaetoia eta traparen garaiotan? Garai zailak dira rock



Epe laburrerako proiektuak

«Hemendik eta udahasierara arte kontzertuak emateko aukerak kudeatzen ari gara, udan maiztasun handiagoarekin jotzeko aurreikuspenarekin. Ostean, estudioa bueltatzeko asmoa dugu, proiektu handiago bat grabatu ahal izateko. Gure lehenengo esperientzia EParekin izugarri ona izan zen-eta».

talde batentzat. Eta ez soilik orain komentatu dugunagatik, baizik eta zuzeneko ekitaldiak prestatzerakoan ere egin behar diren esfortzuetatik. Materiala, garraioa... Eta hori guzti ez balitz, kontzertu batera zoaz jotzera eta ez dakizu jendeak bere partetik jarriko duen ala ez.

Hasiberriak izanda, zelan ikusten duzue musika zuzenean jotzeko dauden aukerak? Rockaz zuzenean gozatzeko modu konbentzionalak desagertzen ari dira; tabernetan, adibidez. Estudioko lan bat eduki behar duzu jendeak serio hartzeko. Zentzu horretan, maketa-lehiaketak ezinbestekoak dira.

Algortako jai batzordeak antolatutako maketa-lehiaketan izan zineten. Zelan izan zen esperientzia? Algortako maketa-lehiaketan bizi izan genuen esperientzia hoberena izan zen, estudioaren esperientziaren ostean. San Nikolas plaza nahiko beteta egon zen. Kontzertu nahiko ona egin genuelakoan gaude eta hurbildu zitzaigun jendeak esan zigun asko gustatu zitzaizela entzun zutena. Gainera, lehenengo saria irabazi genuen eta beste behin jotzeko aukera izango dugu Algortako jaietan uda honetan. Eskerrak eman nahi genizkioke Algortako jai batzordeari. ◀



**Euskarari
atera kontuk!**

JOANES ATXA OLAIZ

Lemoiztik Negurira, bi mila urtean

Noiz jarri zioten Anboto mendiari izen misterioitsu hori? Zergatik dugu Katalunian Aran harana? Eta Errioxako Altuzarra herria? Zenbat galdera eta zeinen erantzun gutxi.

Euskal Herriko leku-izenak misterioz beteta daude. Eta gure eskualdean, nondik ote datoz gure herrietako izenak?

Denetarik dugu gure kostalde kuttun honetan eta bi mila urteko bidaiak egingo dugu gure herri-izenen jatorria aurkitzeko. Badirudi zenbait herrietako izenen jatorria milaka urte atzera kokatzen dela, zehazki, erromatar inperioaren garaietan. Hiru herri, behintzat, baditugu uste horren menpe: Urduliz, Gorkiz eta Lemoiz.

Hirurek dute *-iz* amaiera. Atzizki hori pertsona-izenen ondoren txertatzean, hori nondik datorren edo noren semea den adierazi ohi du. Beraz, itxura osoa du hiru herri horien izenen jatorrian pertsona-izenak daudela, gerora herriei ezarriak. Zalantzak badaude ere, baliteke Gorkiz herri-izenaren jatorrian erromatar garaiko *Corilus* izen klasikoa egotea; Lemoizen atzean *Lemonius* edo *Limo* eta Urdulizen jatorrian *Ortorius*. Gainera, azken izen horretatik eratorri omen zen Ordorika abizen ezaguna ere.

Bi milurteko aurrera eginda, baditugu toponimo modernoagoak ere; ezagunena Neguri da. Getxoko auzo hori XX. mende hasieran eraiki zuten eta mende hasierako euskal pizkundearekin egin zuen bat. Horregatik, badirudi «negu» eta «uri» izenen elkarketaz sortu zutela Neguri izena, garaiko aberatsek negua igarotzeko leku ederra zelakoan.

Hara, gure herri-izenen iragana hain zalantzarri den honetan, batek daki mila urte barru historialariak guri buruz ariko diren, Sopela herriari Sope deitzen hasi ginelako... ◀

Julene Puente *20.000 especies de abejas* filmeko kide

«Inprobisazioa izan da lan guztia, eta oso dibertigarria izan da»

Askotariko sariak jasotzen ari da egunotan Estibaliz Urresolaren *20.000 especies de abejas* filma. Horretan, protagonistaren laguna den Nico pertsonaia interpretatzen du Julene Puente sopoloztarrak.



Julene Puente, erdian, gurasoak ondoan dituela. IKER RINCON MORENO

IKER RINCON MORENO ▶

Txiki-txikitatik gustatu izan zaio zinema eta telebista Julene Puente sopoloztarrari, eta ate handitik egin du salto mundu horretara; izan ere, Estibaliz Urresolaren zuzendaritzapean, protagonistaren lagunaren pertsonaia interpretatu du *20.000 especies de abejas* film arrakastatsuan. Bere ama Ane Nafarratek azaldu duenez, «gaixorik geunden itxialdi batean proposatu zigun Julenek aktore izan nahi zuela, eta kasualitatez topatu genuen pelikula honen castinga». Hautaprobak iazko urtarrian egin zituzten, eta, horietan, Julenek gogoratzen du antzerki txiki bat egin behar izan zuela, inprobisatuta, «praktikatzeko eta ikusteko nola egiten genuen». Aurkeztu eta lortu; papera berea zen. Hala, udan, ikasturtea amaituta, zazpi astez grabatzen aritu ziren. «Izuga-

rria izan da Estirekin lan egitea; oso zail ikusten dut halako esperientzia bat erreplikatzeko», dio Anek: «Bere lan egiteko modua oso ona izan da umeentzat, interpretazioak inprobisazioen bidez egin baitira, joko baten moduan».

Julene eta bere familia ez da kontziente izan filmak sortu zezakeen oihartzunaz Alemaniako Berlinale sarietan izan zuen arrakasta ikusi arte. «Izan ere, martxoaren erdian izan den Malagako festibalean ikusi ahal izan dugu filma osorik aurrenekoz, eta esan beharra dugu benetan merezi duela ikusteak. Ofizialki apirilaren 21ean estreinatuko dute», gogoratzen du Jon Ander Puente aitak. Bere burua pantaila handian ikusteak zirraraz bete du Julene, «oso guay izan da», eta argi du berriro gustatuko litzaiokeela beste pelikula batean parte hartzea, «edo zeinetan». Horretarako, ikastolako antzerki-taldean eman du izena. ◀

Koldo Somokueto Eusko Ikaskuntzako historialaria

«Sopelara trenea iristea gertakizun ‘iraultzailea’ izan zen»

Bi urteko lanaren ostean, Koldo Somokueto historialariak 1980-1950 urteen arteko Sopelaren memoria historikoko hainbat pasarte berreskuratu ditu. Bere lana laster argitaratuko dute.

ANDER ZARRAGA ►

Ikerkuntza-prozesua hurbiletik abiatu zuela kontatu du historialari urduliztarrak: «Ikerketa Sopelako udal-gordetegan hasi genuen, horren parte bat udaletxean dago eta beste bat Bizkaiko Foru Agiritegi Historikoan». Horrez gain, Salamancako Memoria Historikoaren Zentro Dokumentala, garaiko prentsa historikoa eta ahozko testigantzak ere batu ditu. Prozesu guztia Ludger Mess EHuko historialariaren gidaritzapean eta laguntzagaz egin du.

Hasiera batean, lanak Bigarren Errepublikak eta Frankismoaren lehen urteak hartzeko asmoa zuela azaldu du, hala ere, ikertu ahala Errestaurazioa eta Primo de Riveraren diktatura ere sartzea garrantzitsua zela konturatu ziren: «Garai horretan gertatu ziren hainbat pasartek Sopelaren etorkizunean zeresan handia izan zuten; izan ere, 1893. urtean trenea heldu zen Sopelara, eta hori gertakizun erabat iraultzailea izan zen inguruko udalerrir guztientzat». Gertakizun horrek eskualdeko izaera erabat irauli zuen, Bilbo eta itsasadarreko eremua hurbildu zituelako. «Horri esker sopoloztar asko lantegietara joan ahal izan ziren lanera, eta baserriko produktuak Bilbon saltzea ahalbidetu zuen».

LEHEN UDATIARRAK. Gertakizun horrek oraindino gaurkotasun handia duen fenomeno bat ere eragin zuen: udatiarrak. Garai horretan, Plentzia eta Sopelako hondartzak jendez bete ziren, «baina Sopelakoek ospe txarra hartu zuten prentsaren erruz, hainbat pertsona ito baitziren bertan. Horren aurrean, 1928ko ekainean Udalak *Noticiero del Lunes* egunkarian artikulua bat ordaindu zuen adierazteko Atxabiribil segurua zela, hondartza arrisku-tsua Arriatera zela; udalerririko lehen publie-rreportajea izan zela esan dezakegu». Gainera, garai horretan hainbat etxe eta jauregi ere eraiki zituztela gogoratu du Somokuetok.



Somokuetoren lana laster argitaratuko da liburu elebidun batean. HO DEI TORRES

Euskararen bilakaera Sopelan

«Ikerketan euskararen bilakaera ere aztertu dugu, baina ez da batere erraza izan, hori berreraikitzeke ez baitugu ia dokumentaziorik. Hala ere, ondorioztatu ahal izan dugu 1918-19 urteen bitartean elizan apaizen sermoiak euskaraz egiten zirela. Gerora, gazteleraz ere egiten hasi ziren, beraz, baliteke gaztelaniatze prozesu bat egon izana. Uste dugu hori Bilbotik etortzen ziren udatiar erdalduen eraginez eta kanpotik etortzen ziren irakasleengatik izan zela. Frogatzeko oso zaila da, baina nik uste dut udalerrir erabat euskalduna zela garai hartan. Frankismoaren garaian, euskara ezabatu egin zuten eta hilobietan eta hainbat negozioetan euskarazko inskripzioak kentzea derrigortu zuten»

«Tamalez, jauregi eta etxe horietako oso gutxi geratzen dira gaur egun zutik».

BIGARREN ERREPUBLIKA. Udatiarrakaz batera, trenean ideia berriak ere etorri ziren Sopelara, hala nola abertzaletasuna eta errepublikanismoa. «Garai horretan, azpimarratu nahiko nuke Sopelak bere lehen alkate emakumea izan zuela: Concordia Moral. Larabasterrako eskola mistoko irakaslea zen eta 1933an Udalaren Batzorde Kudeatzailea gidatzeaz arduratu zen hiru hilabetez. Oso azpimarragarria da garai horretan emakume batek lan hori burutzea. Moralek ika-mika asko izan zituen udalerrir, baina hori laster argitaratuko dugun libururako utziko dugu».

Gerra Zibilean, errefuxiatuen etorrera, gudarir sopoloztarren jarraipena, Burdin Hesiarren eraikuntza edota matxinatuen sarrera ere aztertu ditu. Kontatzen duenez, frankistak Sopelan sartu zirenean, udal-idazkariak gordeta zegoen Espainia nazionaleko bandera bat eman eta soldaduek San Pedro elizan jarri zuten. Errepresioari dagokionez, Felipe Marcada Mauricaren kasua azpimarratu du Somokuetok: «Euskal Itsas Gudarostean zegoen itsasoratuta, eta 1937an fusilatu zuten. Baina beste hainbat kasu egon ziren, eta denek izenak batzen saiatu gara».

Frankismoko hasierako urteetan sopoloztarrak nola bizi izan ziren ere ikertu du urduliztarrak, eta, besteak beste, bertako alderdi falangista nork osatzen zuen eta nola funtzionatzen zuen aztertu du. «Lanaren aurkikuntza handienetako bat da hori, beste udalerririetan informazio hori aurkitzea oso zaila baita». ◀

Zinez diot **Irati**

Izena badu (du) eta bada

Ikusi den horretan sinestea logikoa izan ohi da; ikusi ez den horretan sinestea fede-egintza bat da eta ikusi denean ez sinestea, aldiz, oso zaila.

IÑIGO ESTEBAN LEZKANO ▶

Sentitu, entzun edo ikusten duguna zalantzan jartzea beharrezkoa da askotan, baina oso nekeza baita ere. Zinemarekin, gutxienez, gure burua eramaten uztea eta tarte batez abstrakzio ariketa bat egiten saiatzea komeni da.

Orain arte egindakoaren ondoren, zaila da Paul Urkijo bezalako zuzendari batean ez sinestea. Fantasiarekiko eta mitologiarekiko ezagutza eta gogo handiaz baliatuz, gauza handiak egitea lortu du. *El bosque negro* (2015), *Naara* (2015) edo *Dar-Dar* (2020) film laburrak nabarmentzeko modukoak izan ziren, besteak beste, baita *Errementari* (2017) bere lehen film luzea ere. Hala ere, kasu ho-



Irati

Zuzendaria:

Paul Urkijo

Gidoilaria:

Paul Urkijo

Antzezleak:

Edurne Azkarate, Eneko Sagardoy, Itziar Ituño, Nagore Aranburu, Elena Ruiz, Iosu Eguskiza, Kepa Errasti eta Iñaki Beraetxe.

Iraupena: 111 min

netan, are urrutira jo du zuzendariak. Anbizio handiko proiektu bati aurre egin dio, eta aurreikuspen guztiak gainditu ditu, Euskal Herriko zinemagintzak lortutako markak hautsita.

Kasuotan beti gertatzen den bezala, normala da denoi berdin ez gustatzea, baina argi dago inork ezin izango lukeela hobeto egin, eta are gutxiago kontuan izanda zer zaila den zinea gure herrialdean eta gure hizkuntzan, euskaran, egitea. Paul Urkijok eta bere taldeak maila artistiko zein tekniko handiko filma landu dute, gure mitologiari buruzko kontakizun bat oinarri hartuta. Istorio horrek gure haurtzaroko une horietara hurbilduko gaitu, Mari, lamiak eta Tartalori buruzko ipuinak kontaktzen zizkiguten momentu horietara, hain zuzen ere.

Argi dago gutariko askok ez ditugula istorio magiko horiek horren gogoan izango, baina oso atsegina izan da berriro gogora ekartzeta eta sentiaraztea.

Irati du izena, eta bada. ◀

Irakurrian **Bakartien elkarte**

Bidaia mundu hobe baten bila

Siriako familia batek bidaiari ekiten dio gerratik ihesi, Espainiako Estatura heldu arte. Istoria Madriler

IBAIZABAL ▶

Errefuxiatuek mundu hobearen bila ekiten diote bideari, bizitza arriskuan ez dagoen eta garapen pertsonala posible egiten duen munduaren bila. Pilar Lozano Carbayo idazlearen liburu honetan, Siriako gerrak sortutako arriskuetatik ihes egitea erabakitzen duten Jamal eta Amir mutikoen erromesaldia ezagutzeko aukera izango du irakurleak. Protagonisten gurasoek bizirik irauteko jolasa irakatsi diete, baina, nahikoa izango ote da hori, Mediterraneoaren beste aldetik Espainiako Estaturaino bidaia-tzeko? Bidaian, ordea, konturatuko dira ez daudela eurek usten duten bezain bakarrik, Arratsaldeko Bakartien Elkarteak lagunduko baitie aurrera egiteko.



Bakartien elkarte

Egilea:

Pilar Lozano Carbayo

Argitaletxea:

Ibaizabal

Urtea:

2020

Orrialde kopurua:

200

Jatorrizko hizkuntza:

Gaztelania

Protagonisten erromesaldiaren bidez, irakurleek munduko errefuxiatuen arazoa ezagutzeko aukera izango dute, gordintasuna erabat baztertu gabe, irakurleen adinera –10 urtetik aurrera– egokitutako pasarteek lagunduta. Hala, munduko beste leku batzuetan bizi diren zailtasunak ulertzen lagunduko digu liburuak, baita herritar pribilegiatuaren egoeraren inguruan hausnarketa bideratu ere. Halaber, beldurrak gainditzera gonbidatzen du irakurlea; beldur faltsua eta benetako beldurra kontrajartzen dira lan honetan, irudimenaren ondoriozkoa eta protagonistek bizi dituzten egoera errealeen ondoriozkoa.

Liburua Pilar Lozano (Benavente, Zamora, 1953) kazetariak idatzitakoa da, haurrentzako literaturan aritua. Egindako lanei esker hainbat sari irabazi ditu bere idazle-ibilbidean, hala nola Barcos de Vapor saria (2005), Haur te Gazte Literaturako Edebe saria (2008) eta Lazarillo saria (2010).

Ilustrazioak, berriz, Laura Catalan (Vigo, 1975) artista plastiko eta ilustratzaileak egin ditu. ◀

Euskararen baratzea... ezagutz aldatzea! Joseba Santxo



Kantuz

Kantuz sortu naiz eta, kantuz nahi bizi; kantuz **igortzen** ditut nik penak ihesi...» honelaxe hasten dira Jose Mendiage idazle **aldudetarren** bertso ezagunak. Ez da berria, beraz, kantatzeak penaren aurkako onura terapeutikoak dituelako ideia. Pirritzek eta Porrotzek ere argi erakutsi ziguten kantua dela zorionerako gakoa: «kantatzen ez duenak zorionik ez du» dio *Bizitza kantu bat da* abesti alaiaren leloak.

Kantuaren erabilera zirrargarrietakoa, berriz, Martin Larralde Hazparneko zapatari **premuak** kartzelatik zabaldu zituen bertsoena izango da beharbada: «Kantatzera **nihaz** **alegera** gabe...». *Galerianoaren kanta* izeneko abesti honek historia tristea dakarkigu: 1815ean atxilotu zuten Martin delako hori, aitak salatuta, gizon bat hil zuelakoan. Larralde bere errugabetasuna aldarrikatu zuen; alferrik baina: galeretara kondenatu zuten betiko. Sortako azken ahapaldian agertu zigun bertsoon helburua: «Kantuok eman ditut, ez **xangrinatzeko** / ah(a)ide-adixkide(a)k **kuraie** hartzeko / eta **partikulazki**, aita, zuretako / kantu hau(e)k aditzean, semiaz oroitzeko».

Aberrigintza ere landu daiteke kantuaren bidez. Telesforo Monzonek, kasurako, herria kantatzera gonbidatu gintuen *Kanta aberria* abestian: «Kanta zak euskalduna, kanta zak hire herria...». Fermin Muguruzak ere gogorarazi zigun kantatzen duen herri bat ez dela inoiz hilko *Gora herria* lanean. Izan ere, kantuak batu egiten gaitu. Lehengoaldi batean Berangoko Otxandategi dantza taldea eta Altxüküko Altxükütarrak musika taldea Berangon elkartu ziren kontzertu ederra eskaintzeko, Bizkaia eta Zuberoa euskal kanten bidez uztartuz. Euskaldunok kantu bat garen seinale. Jon Maiak arrazoia.

Anje Duhaldek kantuz daramatza gauak aspalditik, kantuarekin **gozatzen** bere penak: «kantuz deramat bizia, ahazteko hiltzia» dio *Kantuz* abestian. Ez da **akordu** txarra kantua erabiltzea egunen batean hil behar dugula ahazteko. Baina Xabier Amurizari hiltzea bera ere **begitantzen** zaio kantagarri. Hala dio, behintzat, *Hilkutxan ere kantari* bertso sorta mitikoaren azken alean: «Hiltzea zein penagarri / nor ez du pentsatu sarri / baina mesedez lore tristerik / niri ez ekarri; / eman aurretik lurrari / hilkutxa zabalik jarri / azken bertsoa kanta dezadan / zuen negarrari!».

Bada zer kantatua. Goio Etxebarria Algortako euskaltzale eta kantuzale **errimeak** 'segi kantatzen' esan zigun hil aurretik. Orain ez gara isilduko, ba! Kantuz ibili, gero! ◀



Berba azoka

Igorri

Bidali, bialdu.

Aldudetar

Aldude herrikoa (Nafarroa Beherea).

Premu

Maiorazkoa, seme-alaben artean nagusia eta oinordekoa, hau da, gurasoen ondarearen jasotzaile lehenetsia.

Nihaz

Noakizu, noa.

Alegera

Hemen, poztasuna, alaitasuna.

Galeriano

Galera motako gerraontzietan arraun egitera kondenatua.

Xangrinatu

Penatu, atsekabetu.

Kuraie

Kemena, adorea.

Partikulazki

Partikulariki, bereziki.

Aberrigintza

Nazio eraikuntza.

Gozatu

Hemen, leundu, apaztu.

Akordu

Hemen, burutazioa, ideia.

Begitandu

Iruditu.

Errime

Trebea, iaioa.

Mikel de Gregorio Euskal Seleksioko kirol-zuzendaria

«Partiduak jokatzeko tarteak eta baimenak lortzea oso zaila da»

Hainbat futbol taldetan jokatzeko aritu eta gero, duela bi urte, Euskal Seleksiora jauzia eman zuen Mikel de Gregorio algortarrak, bertako kirol-zuzendari lez aritzeko.

NAHIA MARTINEZ GONDRA ►

Beste ikuspuntu batetik bizitzen du futbola De Gregoriok orain, eta, horregatik, beragaz elkartu gara Euskal Seleksioaren etorkizunaz berba egiteko, baita kirol-zuzendari gisa bizitakoez aritzeko.

Euskal Seleksioan lanean hasi zarenetik zein izan da erronkarik handiena? Euskal Seleksioan, mutilen zein nesken taldeen alde, bi alor nagusi ditugu: alde batetik, azpiko kategoriak, eta, bestetik, absolutuak. Egunerokotasunean, azpiko seleksioak dira kudeatzeko denbora gehien ematen digutenak. Izan ere, egunean jarri behar dituzu taldeak, entrenatzaileak bilatu, hobetzen jarraitu behar duzue... Erronka polita da. Horrenbestez, txapeldun gelditu ginen «Sub-14»-koekin eta bigarren «Sub-13»-koekin. Beraz, nahiko sailkapen onak egin genituen, eta nik uste dut Seleksioak gorantza egin duela. Seleksio absolutuen harira, aurten neskekin partidu bat jokatu dugu Txileren kontra, aste barruan.

Zuzendari bilakatu baino lehen, futbolari gisa aritu zara hainbat taldetan: Romokoan, Aretakoan... Jokatzeko faltan botatzen duzu? Egia esan, ez. Txikitik ikastolan hasi nintzen jokatzeko, eta 33 urte bete arte talderen batean jokatu izan dut beti. Baina, nik uste, futbola utzi nuenean zuzenean hasi nintzen Getxoko kirol-zuzendari gisa, ez zitzaidala hain arrotza egin. Gero, handik hiru urtera, Euskal Seleksioan hasi nintzen, eta, nolabait futbolari



Getxoko kirol-zuzendari bezala ere aritu zen Mikel de Gregorio. HODEI TORRES

Erronkak

«Egunerokotasunean, azpiko seleksioak dira kudeatzeko denbora gehien ematen digutenak. Izan ere, egunean jarri behar dituzu taldeak, entrenatzaileak bilatu, hobetzen jarraitu behar duzue...»

Ofizialtasuna

«Nik uste Euskal Seleksioaren ofizialtasuna jende askok duen ilusioa dela; jendeak gure herria ordezkatzeko duen seleksio bat ikusi nahi du»

lotuta jarraitzen dudanez, ez dut faltan botatzen jokatzeko. Beharbada momenturen batean apur bat, baina futbola utzita nuenean orkatila apurtu nuen, eta horregatik orain saiatzen naiz baloia asko ez ukitzen, kar-kar.

Euskal Seleksioko ofizialtasunaren harira, hainbat polemika egon dira azken boladan. Izan ere, errotze historikoa duten kirolak soilik hartu gura dituzte kontuan, adibidez, eskupilota. Zein da zure iritzia kirol-zuzendari gisa? Nik uste Euskal Seleksioaren ofizialtasuna jende askok duen ilusioa dela; jendeak gure herria ordezkatzeko duen seleksio bat ikusi nahi du. Pilotan edota beste kirol batzuetan ofizialtasun hori egotea pozgarria da, baina ez da erabateko soluzioa ere. Alde batetik, poza ematen du kirol gutxi batzuetan posible izatea, baina egia da futbola dela beharbada jende gehien mugitzen duen kirola, eta zaila da kirol horretan ofizialtasuna ahalbidetzea. Bidea nahiko itxita dago, eta ez da erreza. Hala ere, espero dut egunen batean hori errealitate bihurtuta ikusi ahal izatea. ◀

Inhar Ugarte Bigarren Mailako Banakako Trinket Txapelketako irabazlea

«Buruz burukoan aritzea oso latza da»

Zortzi urtegaz hasi zen eskupilotan jokatzen, eta orain, 33 dituela, Inhar Ugarte algortarrak Bigarren Mailako Banakako Trinket Txapelketa irabazi du, Hego Euskal Herriko lehenengo irabazlea bilakatuz.

NAHIA MARTINEZ GONDRA ►

Atzera begiraturaz, bere hastapenetan oso garrantzitsua den pertsona bat ekarri du gogora algortarrak: «Kepa Arroitauregiri esker hasi nintzen trinketean jolasten, 17 urte nituela. Tamalez, duela hiru urte hil zen». Hala, trinketean hasi zenetik ez da gelditu: Bizkaiko eta Euskal Herriko txapelketa ezberdinak irabazi ostean, Ipar Euskal Herriko kirolariakaz jokatzen hasi zen. «Trinketeko maila altuenean jokatzeke Ipar Euskal Herrira joan behar zara», argitu du Ugartek. Modu horretan, bertan ere hainbat lehiaketako irabazle izan ondoren, duela bi urte egin zuen debuta maila profesionalean Ipar Euskal Herrian.

Orain, goi mailan aritzen dela, ezberdintasun handia dagoela aitortzen du. Aitzitik, kontziente da bere debuta ez dela ohikoa: «Askotan jolastu ditut berezkoen kontrako partidak, baina ez da berdina 18 urterekin partidu bat jolastea edota 32 urterekin egitea». Gainera, argi dauka pilota asko gustuko duelako jarraitu duela jolasten, «ez banu gustuko izango aspalditik ez nintzela jokatzen egongo, eta, hortaz, ez nukeen inoiz momentu hau biziko», adierazi du.

Bigarren Mailako txapela irabazi eta gero oso pozik dagoela aitortu du algortarrak, baina momentu honetara heltzeko ahalegin handia egin duela ere adierazi du: «Buruz buruko jokatzea oso latza da, bai fisikoki, bai psikologikoki. Azkenean, oso gogorra da; zu bakarrik zaude kantxan eta zuk atera behar duzu partidua aurrera. Sufritzea zaila da, baina irabazten bada errazagoa da sufritzea».

Alabaina, konfiantzaz jokatu ditu ligako partidak, eta bazekien behintzat finalerdietara



Orain Bigarren Mailako Binakako Txapelketari ekin dio Inhar Ugartek. HO DEI TORRES

Jokamoldeak
«Trinketa Ipar Euskal Herriko jokamolde bezala kontsideratu izan da beti, batez ere, eskuzko trinketeko kultura handia dagoelako. Hemen, Hego Euskal Herrian, ezker paretako euskal pilota ikusten da batez ere, eta horregatik uste dut ez dela lehenago Hegoaldeko pilotari irabazlerik egon»

ra helduko zela. Ugartek azaldu bezala, nahiz eta berezkoetan aritzeko maila aspalditik izan, Ipar Euskal Herrian ez zen ezaguna, eta horregatik oraingoa izan da bere lehenengo buruz buruko txapelketa. Eta, azkenean, lortu du: zazpi partidu irabazi, eta txapela etxera eraman du.

Beragaz batera, duela gutxi Luis Sanchez nafarrak ere Lehenengo Mailako Trinket Txapelketa irabazi du, eta, horregatik, Ugarteren hitzetan zerbait «historikoa» egin dute: «Trinketa Ipar Euskal Herriko jokamolde bezala kontsideratu izan da beti, batez ere, eskuzko trinketeko kultura handia dagoelako. Hemen, Hego Euskal Herrian, ezker paretako euskal pilota ikusten da batez ere, eta horregatik uste dut ez dela lehenago Hegoaldeko pilotari irabazlerik egon».

Hala ere, garaiak aldatzen ari dira, eta, azaldu duenez, zirkuituak koordinatzen dituen enpresa jokalaria berriak sartzen ari da. Modu horretan, zirkuitua Hego Euskal Herrira irekitzeko gura dagoela sumatzen du, baita bertoko pilotariak Ipar Euskal Herrian txertatzeko saiakera ere. ◀

Hirukira olgetan

© GARBIÑE UBEDA

SOLUZIOAK:



AURREKO
SOLUZIOAK




Sudokua



Liburuetan HITZAK aurkitzen dira, ezta? Bete hutsuneak hitz hori osatzen duten hizkiak (H, I, T, Z, A eta K) toki egokian jarritz. Gogoratu hizki bakoitzak behin agertu behar duela zutabe, lerro eta area bakoitzeko.

Handienetik txikienera


Lagundu bikote honi bere liburuak apalean ordenatzen. Handienari 1 zenbakia eman eta txikienera 9. Bide batez, beheko irudia margotu.



Nork zer Gure laguntxoek liburu bana irakurri nahi dute. Zein hautatuko du bakoitzak?



1




2



3



4



Egiteko beste mundu bat

IRAIDE JUARISTI LAB eskumalde



Duela egun batzuk Ines Osinaga eta Joseba Sarrionandiaren emanaldira joan nintzen, eta haiek abestu eta idatzitako letra batek inspiratu ninduen: «Ikusten da porturik? Ez dugu ikusten baina imajinatzen dugu, eta haruntz goaz arraunean».

Olatu gogorren artean bizi gara. Krisien krisia, elikagaien, etxebizitzaren eta beste oinarrizko beharren garestitzea, zerbitzu publikoen murrizketa eta langileon pobretzea dira kapitalaren eskaintza. Galerna eta lainoa, ez da ikusten ezer. Denon bizitzak ardatz izango dituen portua behar dugu. Lema ezkerretarantz eginez, trantsizio ekosozialista eta feminista da kapitalari aldaketaren norabidea lehiatzeko bidea.

Saregile eta marinel guztien etxea izan nahi du gure itsasontziak, LAB-ek. Guztion artean arraun egiteko, elkarrekin. Gure herria, jatorri, arraza eta genero ezberdintasunik gabeko herria imajinatzen dugunez, inongo bereizkeriarik gabeko portua behar dugu.

Badugu portua, Euskal Herri sozialista, feminista eta ekologista. Badugu bidea, zaintzak, enplegua eta ondasunaren banaketa ardatz izango dituen burujabetza prozesua. Baditugu marinelak eta saregileak, egunez egun beste mundu josten gabiltzanok. Batera boga. Bagoaz arraunean.

(In)koherentzia vs koherentzia

GORKA MOSTAJO GALDUROZ Gizarte langilea



Iraganeko jokabideak ikusi ditugu egunotan Getxon. Herrikide gutxi batzuek, Nagusien Etxe ohian izandako bizipenengatik, eraikinari izan ziezaioketen atxikipen emozionalaren atzean, koherentzia vs inkoherentziaren arteko bataila politikoa ezkutatu dute.

Batetik, proiektu berritzaile baten aurrean historikoki errepikatutako «betikoen» borroka ikusi ditugu EH Bildun. Egia esatearren, euren ibilbide politikoarekiko koherenteak izan dira: «(Proiektua)-RI EZ!», da euren eskaintza. Romon belaunaldiarteko proiektu berritzaile bat izango dugu, gazte eta adindunentzat, europar Next Generation funtsen babesa izango duena. Horretarako, Podemoseko buru eta espainiar ministra den Belarraren sinadura jaso du proiektuak (2021/10/19ko akordioa, urriaren 30ean BOEn argitaratua). Inkoherentzia, beraz Ahal Dugurena. Madrilen uso, etxean otso.

Bestetik, Belaunaldiarteko Zentroa, hauteskunde programan zeraman EAJk, eta emandako hitza bete du, koherentziaz. Aurreko osoko bilkuran, jokaera zeharo antidemokratikoan, irainak bota zizkieten proiektu berriaren aurka dauden herritarrek emandako hitza bete duten ordezkari. Nik irainak beharrean, proposamen berritzaileak eta hitza betetzea eskatzen diet. Herria hobetzeko, aurrera egiteko, koherentzia eraikitzailea.

Horoskopoa



Ura
(Abenduak 21-Urtarrilak 19)

Adiskideakaz duzun harremana zaindu beharko zenuke, azken finean, benetako lagunek egoera on eta txarretan zaituzte beti.



Otsoa
(Urtarrilak 20-Otsailak 18)

Pazko Astea ate joka dugu, eta oraindino ez dakizu zer egun opor-egunetan. Denborari aurrea hartzen ez badiozu etxean lotuko zara.



Adarra
(Otsailak 19-Martxoak 20)

Guztientzat logikoa denari zuk ez diozu zentzurik ikusten. Erotzen hasita al zaude? Lasai, ikuspuntu ezberdinak egotea ohikoa da.



Aitzurra
(Martxoak 21-Apirilak 19)

Arriskatzeko unea iritsi zaizu. Berria edo ezezaguna denari beti izan diozu beldurra; ez birritan pentsatu eta egin ezazu aurrera.



Hostoa
(Apirilak 20-Maiatzak 19)

Lan kontuetan maitasunezkoetan baino interes handiagoa duzu. Jarrera hori zure alde erabil dezakezu, jende berria ezagutzeko behintzat.



Eguzkia
(Maiatzak 20-Ekainak 18)

Indar handiz hasi duzu urtea; oso momentu ona da zeure bizitza begi berriakaz ikusteko eta erronka berriei aurre egiteko.



Garia
(Ekainak 19-Uztailak 18)

Poz-pozik zabiltzala agerikoa da, baina alaitasun horren zergatia inork ez daki. Ba al dakizu zuk?



Lastoa
(Uztailak 19-Abuztuak 17)

Sormen eta ideia originalez beteta duzu burua, eta orain edozein arazo gaintzeko gai zara. Zeren beldur zara?



Iratzea
(Abuztuak 18-Irailak 16)

Lankide batez eztabaidaren bat izango duzunez, tentsio handia jasango duzu hilabete honetan.



Meta
(Irailak 17-Urriak 16)

Lan egitea, kalera irtetea, lagunakaz geratzea... den-dena astuna egiten zaizu, erabat nekatuta zaude. Har ezazu deskantsua, zure onerako da.



Hazia
(Urriak 17-Azaroak 15)

Oraindino kontu berari bueltak eta bueltak ematen zabilta. Eten momentu bat, askotan guk geuk egiten ditugu gauzak arazo.



Negua
(Azaroak 16-Abenduak 20)

Pandemia atzean utzita zenuela uste duzunean, musukoa jantzita ikusi duzu jendea nonahi. Itxialdi berri baten atarian zaudela uste duzu?

hirukalagunen txokoa

Sari ederrak eskura!

Zozketa

Obsoletus-erako sarrerak

Apirilaren 28an, barikuan, Anodino Teatroa konpainiaren antzezlan eder hau hartuko du Getxoko Muxikebarri Antzokiak. Saioa 19:30ean hasiko da; sarrera bikoitzak ditugu zure zain.



Zozketan parte hartu gura baduzu, apirilaren 20a (eguna) baino lehenago bidali zure izen-deiturak eta harremanetarako bidea hona: bete Zozketak ataleko formularioa HIRUKA.eus webgunean.

Zozketa

Bakartien elkarte liburua

Ibaizabal argitaletxearen eskumenez, Pilar Lozanoren eleberririk eder hau zozkatuko dugu gure irakurle guztien artean. Irakurri gura duzu? Bada, ez galdu aukera!

Zozketan parte hartu gura baduzu, apirilaren 20a (eguna) baino lehenago bidali zure izen-deiturak eta harremanetarako bidea hona: bete Zozketak ataleko formularioa HIRUKA.eus webgunean.



Zozketa

Eskaladan trebatu gura?

Berangoko merkatalgunean bertan eskaladaren munduan txonbo egiteko punta-puntako instalazioak dituen Sputnik Climbing gunerako sarrerak zozkatuko ditugu. Ausartuko zara?



Zozketan parte hartu gura baduzu, apirilaren 20a (eguna) baino lehenago bidali zure izen-deiturak eta harremanetarako bidea hona: bete Zozketak ataleko formularioa HIRUKA.eus webgunean.

Zelan egin HIRUKAlagun?

Webgunean: hiruka.eus/harpidetza/laguna

Idatziz: hirukakoop@hiruka.eus

Deituz: 944 911 337 • 688 812 368

Urtean 35 euroren truke, Uribe Kostako euskarazko komunikazio-taldearen bultzatzailea eta partaidea izango zara.



XXIII UMORE AZOKA

FERIA DE ARTISTAS
CALLEJEROS DE
LEIOA

MAIATZAK 18, 19,
20, 21 MAYO 2023

